

# 1. Bizitzaren iraunkortasuna



**IZENBURUA:** Eztabaida feministarako kaierak:  
I. Bizitzaren iraunkortasuna

**EGILEA:** Gipuzkoako Foru Aldundia  
Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoa

**AUTOREAK:** Silvia López Gil  
Rocío Lleó Fernandez  
Amaia Pérez Orozco  
Cristina Santillan Idoate

**MAKETAZIOA:** Imanol Tapia

**DATA:** 2012ko apirila

**ALE-ZENBAKIA:** 700

**INPRIMAKETA:** Gipuzkoako Foru Inprimategia

**ISBN:** 978-84-7907-731-0  
**LEGE GORDAILUA:** SS-971-2015

# EZTABAIDA FEMINISTARAKO KAIERAK

## I. Bizitzaren iraunkortasuna

Autoreak

**Silvia López Gil**  
**Rocío Lleó Fernandez**  
**Amaia Pérez Orozco**  
**Cristina Santillan Idoate**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Diputatu Nagusia

*Emakumeen eta Gizonen Bedintasunerako Organoa*  
*Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres*



# AURKIBIDEA

---

Aurkezpena.....	7
1. Hitzaurrea .....	9
2. Bizi daitekeen bizitza. Unibertsaltasuna eta singularitasuna irizpide gisa.....	13
3. Zer da bizi daitekeen bizitza? Geure buruari <i>edukiaren</i> ikuspegitik galdetzea .....	17
3.1. Zainketak, antolamendu politikoaz eta praktikoaz haratago.....	17
3.2. Maskulinitatearen eta femeninitatearen eraikuntza; eredu heteronormatiboa? .....	23
3.3. Osasuna, emakumeen artean ikusezina den adierazlea.....	26
3.4. Hiri-hazkundera, noraino? Eta, batez ere, nola? .....	33
3.5. Hiri globaletako bizimoduak: kontsumoa, lana eta logika <i>sekuritarioa</i> .....	37
4. Zer da bizi daitekeen bizitza? Gure buruari haren <i>kudeaketaren</i> ikuspegitik galdetuz .....	43
5. II. Berdintasun Planerako iradokitzen ditugun esku-hartzerako estrategiak .....	47
5.1. Hirigintza / dehaizkundera .....	47
5.2. Bizimoduak: bizi daitekeen bizitza garatu ahal izateko beharrezkoa edo desiragarria dela aintzatesten dugunaren inguruko sinesmen subjektiboak ezbaian jarri behar ditugu .....	48
5.3. Osasuna, emakumeak eta ingurumena: Bizitza iraunkorrean pentsatzen badugu, biztanleria osasuntsua izateko beharrezkoak diren baldintzak sortu behar ditugu .....	49
5.4. Sendatze prozesua .....	52
5.5. Nortasun sexualaren eta genero-identitatearen eraikuntza .....	53
6. Bibliografia .....	55
6.1. Biziera Ona Latinoameriketako mugimendu feministen ikuspegitik.....	55

6.2. Biziera ona (biana... ez mugimendu feministetik).....	55
6.3. Bizitzaren iraunkortasuna eta sistemaren kritika feminista .....	56
6.4. Ekofeminismoari eta Deshazkunderari buruz.....	57
6.5. Ekonomia Solidarioa .....	57
6.6. Osasuna.....	58
6.7. Maskulinitatearen, feministatearen eta sexualtasunaren eraikuntza .....	58
6.8. Hiri globalak .....	59
6.9. Bizimoduak .....	59
7. Baliabideak sarean.....	60

## AURKEZPENA

---

Jarraian aurkezten den koaderno hiru dokumentutatik lehenengoa da. Berdintasuneko teknikariek eta Gipuzkoako mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarteekin irekitako hausnarketa prozesuaren esparruan egindakoak dira, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana* gauzatzean.

Bilduma hau osatzen duten hiru koaderno bidez, hausnarketa sustatu nahi da emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak benetan gartzeta eragiten duten gai garrantzitsuen inguruan:

- Bizitzaren iraunkortasuna
- Zaintza lana
- Prozesu ekonomikoak

Dokumentu irekiak dira, oinarrizko helburua dutenak eztabaida sortzea eta errealitatea aztertzea ikuspegi feministatik, gizartearen sentsibilizazioan eta politika publikoen diseinuan sakontzeko asmoz, benetako aldaketa soziala izaten laguntzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde.

Nahiz eta 2012ko apirilean eginak izan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana* gauzatzeko prozesuaren esparruan, ulertzen dugu koaderno horiek hedatzea interesgarria eta baliagarria izan daitekeela hausnarketa prozesuak irekitzeko beste testuinguru batzuetan, eta, horregatik, egokia iruditu zaigu banatzea.

Espero dugu interesgarriak izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiak bezala, beren eraginpeko eremuetan gizarte bidezkoago eta berdintasun handiagoko bat lortzen lagundu nahi dutenentzat.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA





## 1. HITZAURREA

---

**B**izitzaren iraunkortasunari buruzko lan-ardatzaren helburua ez da aplikatzeko proposamen-multzo bat eskaintzea. Esku artean duzun dokumentuan hainbat proposamen aurkituko dituzun arren, dokumentuak beste helburu bat du: Biziera Onaren ideia edukiz hornitzeko eztabaida prozesua zabaltzea. Eztabaida hori denboran luzatuko dela ulertzen dugu, eta baita bestelako gobernu-arloekin elkarrizketa iraunkor bat egon behar dela ere. Horren ildotik, ardatz hau nahiko berezia da: gainerakoak barne hartzeko joera du, eta II Berdintasun Planaren esparru-helburu bilakatzeaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko esparru-helburu ere bilakatzen da.

Baina, zeri buruz ari gara Biziera Ona aipatzen dugunean? *Sumak Kaw-say* eta *Suma Qamaña* dira kitxuaren dialektoetan (Ekuador) erabiltzen diren esamoldeak; Bolivian *aimara* erabiltzen dute. Esamolde horietan du abiapuntua euskaraz Biziera Ona gisa itzuli den ideiak (beste zenbaitetan, Bizi On ere erabiltzen da). Biziera Onak ez du esan nahi gaur atzo baino hobeto bizi behar dugunik, edo besteak baino hobeto bizi behar dugunik; orain ongi bizitzea esan nahi du. Kontzeptuak indar handiz azpimarratzen du indigenek jaiotzetik bizi duten diskriminazioaren egoera. Kontzeptuaren jatorrian bi oinarrizko puntu garrantzitsu daude: lurralde sinbolikoan, "konkistatzaileek baztertu zituzten horiek, eta kreolek, mundua ikusteko duten modutik hitzak ematen dituzte orain, hitz horiez konkistatzaileek sortu zituzten arazoek konponbideari laguntzeko asmoz<sup>1</sup>; bestalde, hegemonia kapitalistak eragindako bizi-kalitatearen andeatze orokorra gertatzen ari deneko testuinguruan, Biziera Onari buruz hitz egitea edo, nork bere buruari bizi daitekeen bizitza zer izan daitekeen galdetzea, azken finean

---

<sup>1</sup> Tortosa, José María, "Vivir Bien, Buen Vivir: caminar con los dos pies" *Obets, Revista de Ciencias Sociales*, 6. lib, 1. alea, 2011. 13-17.orr.

gauza bera baita, erronka bikoitza da, egungo bizi-baldintzak ezbaian jartzen dituelako eta horien eraldaketa proposatzen duelako. Ekuador eta Boliviako gobernuek ideia hori jaso egin dute, Biziera Ona Konstituzioan txertatuz. Dena den, garrantzitsua da maila honetan zabalik dagoen eztabaidaren helmena ez ixtea: Biziera Onaren esanahiaren hedapena askoz ere handiagoa da, dagoeneko jasota ez dauden ahotsak, eztabaidak eta edukiak barneratzen baditugu, eredu politiko eta sozialarekin hausteko duen nahiari buruz ari gara, nagusiki <sup>2</sup>.

Horri dagokionez, dokumentu honetan oinordetzan jasotzen dugun Biziera Onak hausturaren hasierako ideia horretan du jatorria.

Biziera Onari buruzko eztabaidak esanahi berezia hartzen du Europan, egungo krisialdiaren testuinguruan. Laurogeita hamarreko hamarkadan egindako neoliberalismoaren aurkako zenbait gogoetabide kritiko eguneratu egin dira azken gertakizunen ondorioz, Europako hegoaldeko herrialdetan, batik bat (Portugal, Grezia, Italia eta Espainian), bizitzaren iraunkortasunaren gainean hausnartzea presazkoa dela adieraziz. Horren abiapuntua etekinen metaketa baliabide naturalen eta gizakion bizitzaren zaintzaren gaintik kokatzen dituen, eta hori irizpide bakartzat duen hazkunde amaigabearen garapen-ereduak eragindako suntsiketaren egiaztapena da. Egiaztapen horren aurrean, Biziera Ona ideia erakargarria da, izan ere, egungo sistemaren aurreko alternatiba holistikoa proposatzen baitu, eta bizitza irizpide etikoekin pentsatzera bultzatzen baitu, metaketa edo garapen mugagabea alde batera utziz.

Feminismotik, historian zehar, azpimarratu egin da bizitza bere alderdi anitzetan defendatzeko beharra (gerraren aurrean, indarkeriaren aurrean, metaketa mugagabearen aurrean, lurraren ustiapenaren aurrean, ingurumenaren suntsiketaren aurrean). Ekofeminismoa edo zainketaren etika ildo horretan kokatzen dira. Pentsamendu-ildo horrek Biziera Onaren oinarri batzuk bere egiten baditu ere, Biziera Onak berak haratago joateko aukera eskaintzen digula uste dugu: ez soilik bizitza defendatzea, baizik eta bizi-

---

2 Egin diren zenbait elkarretaratzetan aurki ditzakegu ikuspegi horiek:

<http://www.aler.org/index.php/77-novedades-desde-aler/105-encuentro-latinoamericano-de-comunicacion-popular-y-buen-vivir-en-el-mundo-desde-nuestro-mundo>

[http://encuentrodelbuenvivir.blogspot.mx/p/convocatoria\\_02.html](http://encuentrodelbuenvivir.blogspot.mx/p/convocatoria_02.html)

tzak baitan duen edukia ezbaian jartzea; hau da: bizitzari zentzu berriak eraikitzeak aukera eskaintzen digu. Bizitzaren beraren kontzeptua ezbaian jartzen ez badugu, agian, gizaki bakoitzak merkatuan garatzen dituen aukeretan oinarritutako ereduak eutsi nahiko genuke<sup>3</sup>. Horregatik, bizitzaren iraunkortasunari buruz hitz egiteko, hauxe argitu beharko dugu, lehenik eta behin: Zer esan nahi dugu bizitza aipatzen dugunean? Hau da, zer zentzu berri eman nahi diogu «bizitza» kontzeptuari?

Bestalde, azken hamarkadatan sortu diren desberdintasunek, bidezkoa-goia den eredu bat bilatzen duten, eta garapenaren oinarritzat bazterkeria edo munduko biztanleen zati baten ezegonkortasuna izango ez dituen eredu bat bilatzen duten kritikak eragin dituzte. Aberastasuna sortzea, bizitza sozialaren hainbat alderditan egindako aurrerapen sozialak eta ongizatea, ezin dira oinarritu gizarte-erantzukizunak desberdintasunez bereiztean, ezta bizitzaren eta baliabideen ustiapenean ere. Zainketen kasuan, gai hori oinarritzat da, bizitzaren iraunkortasuna esku pribatuetan erortzen delako eta feminizatu egiten delako (ez baita metaketaren logikaren ikuspegitik lehentasun bat), eta horrek ezegonkortasun handiagoa sortzen duen gizarte-erantzukizuna eragiten duelako (lotura bat dago zainketen, desberdintasunen eta ezegonkortasunen artean, zainketen ardatzaren dokumentuan adierazi dugun bezala<sup>4</sup>) Baina haratago doazen egiturazko desberdintasunak aintzat hartuta pentsatu behar dugu, munduko Iparraldeko herrialdeetako bizi mailarekin bezala, horrek Hegoaldeko herrialdeetan birsortze sozialaren krisialdia larriagotzen baitu. Abiapuntua hori izanik, bizitzaren iraunkortasunari buruz hitz egin dezakegu, baina berdintasunaren eta gizarte-justiziaren ikuspegitik: ez dago eredu iraunkorrik garapenak desberdintasunak areagotzen baditu.

Zenbaitetan, eredu sozioekonomiko iraunkorrek sortzearen gaineko eztabaidek zereginak eta baliabideak biztanleen artean banatzeko moduetan jartzen dute arreta. Esaterako, aipa daiteke, guztionak izanik, pribatizatu

---

3 Kasu honetan, Biziera onak bizi daitekeen bizitza guztiontzat edo gutxi batzuentzat ote den, eta errealitate sozial guztien edo soilik batzuen berezitasunak errespetatzen ote dituen galdetzerak behartzen gaituen irizpide formala eskaintzen digu.

4 Orozco, Amaia P. eta Gil, Silvia L.(2011), *Desigualdades a flor de piel: Las cadenas globales de cuidados*, UN INSTRAW, Madril, 2011.

behar ez diren ondasun komunak daudela, hala nola, ura, lurra, kultura edo ezagutza. Aipatzen da ere estatuak izan behar duela publikoa den hori zaintzeko ardura eta, horren ildotik, beharrezkoa da eskola publikoa, osasungintza edo gizarte zerbitzuak defendatzearen, eta baita estatuarena ez den eremu publikoa sortzearen garrantzia defendatzea ere, parte-hartzaileak eta autogestionatuak izango diren sozializazio moduak bultzatzeko baliagarria izango dena eta merkatuen eta estatuaren esku-hartzerik izango ez duena defendatzea. Dena den, ez zaio heltzen Biziera Ontzat jotzen dugunari buruzko gai etikoari. Ura eta lurra ondasun komunak izatea nahi dugu, baina nola zainduko dugu horien kalitatea, eta horien kontsumoaren eta ustiapenaren iraunkortasuna? Kalitatezko zerbitzu publikoak nahi ditugu, baina zer ulertzen dugu kalitatearekin? Are gehiago: Zein itxaropen edo zentzu garrantzitsu estali behar dituzte zerbitzu horiek? Zein bizitzaren zentzu berri hartzen dituzte barne? Zainketen lana banatzea beharrezkoa dela diogu, baina zein da zainketen helburua? Zainketen harreman maltzurren esparruan zaindu nahi al dugu? Eredu heteronormatiboa mantenduz, zainketaren konponbide pribatuak sustatuz? Behar horiek kontsumoan edo indibidualismoan oinarritzen al dira? Hau da: zein bizitza da zaindu nahi dugun hori? Galdera horiek egin ezean, eztabaidaren funtsezko zati bat galduko dugu.

Jarraian premisa horietatik eratortzen diren eztabaidatan murgilduko gara, mugimendu feministetatik egiten diren ekarpenei arreta berezia eskainiz. Bizitza iraunkorraren kudeaketa eta edukia bereiziko ditugu, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzeak zer esan nahi duen ulertzeko helburuz, ez soilik hori egiteko moduaren ikuspegitik, baizik eta zer egiten dugun ere aintzat hartuz. Kudeaketa politikoaz haratago doan funtsezko galdera etikoa egin nahi dugu, gaur egun bizi dugun krisialdi testuinguruan bizitzaren bestelako zentzuak zabaltzeko. Zerez osa daiteke, gaur egun, bizi daitekeen bizitza?

## 2. BIZI DAITEKEN BIZITZA

### Unibertsaltasuna eta singularitasuna irizpide gisa

---

**B**izitzaren kontzeptua bera kontzeptu ezegonkorra da, kolokan dagoena. Feminismotik, Judith Butler bezalako egileek ideia hori azpimarratu egin dute, kulturalki adierrazak diren bizitzen eta ertzetan/bazterretan kokatu diren bizitzen arteko desberdintasunak adierazi dituztenean. Horrek zera esan nahi du, bizitza ez dela aurrez zehaztutako edukia duen zerizan bat. Hori dela eta, zilegi da nork bere buruari galdetzea zer ote den bizitza iraunkorra, edo zer ote den bizi daitekeen bizitza.

Galdera horri erantzun ahal izateko, bi alderdiri heldu behar diegu: ikuspegi formalari eta edukiaren ikuspegiari. Lehenengo ikuspegiari dagokionez, irizpide bikoitza dugu. Edukia edozein dela ere, ezin da bazterkerian oinarritu. Hau da, Biziera Onak ezin du hori izan besteen bizitzaren bizkar egiten bada, eta horrexegatik diogu bokazio unibertsala duela. Baina unibertsaltasun horrek ezin du, aldi berean, errealitate anitza ukatu; hori dela eta, singularitasuna aintzat hartu behar duela diogu. Irizpide bikoitz horrek, unibertsaltasunak eta singularitasunak, Biziera Onaren inguruko galdera blindatu egiten du, garapen mugagabearekin eta munduko Iparraldeko herrialdeetako bizi-maila altuekin lotzen duten erantzunen aurrean: maila altu horiek planetako beste lekuetako ondasun eta baliabideen desjabetzean oinarrituz soilik direlako egingarriak, eta horrek ez duelako unibertsaltasunaren irizpidea errespetatzen. Errealitate osoarentzat balio duen erantzun bakarra ematen duten, eta asmo unibertsalista duten proposamenetatik ihes egitea ere ahalbidetzen digu. Biziera Ona zer ote den galdetzen dugunean, oso bestelakoak diren testuinguruetan egiten dugu (horrexegatik ezin dira, hasiera batean, jarraibide/eredu berberak aplikatu) eta, gainera, testuinguru berean ere erantzun desberdinak behar dituzten errealitateak elkarrekin gertatzeko aukera dago. Adibidez: migrazioak ezaugarri dituen lurralde batean, zainketen hainbat kultura

egon daitezke<sup>5</sup>, amatasunetik eratorritako beharren inguruko ikuspegi desberdinetan gauzatzen direnak. Horretaz gainera, funtsezkoa da aintzat hartzea gehienentzat ezartzen den araura egokitzerik ez duten gutxien errealitateak egon daitezkeela. Bada hori erakusten duen eta sarritan errepikatzen den adibide bat, dibertsitate funtzionala duten pertsonena, alegia. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen zainketa-beharrek eta hiri-inguruneke irisgarritasun-beharrek hiri iraunkorra ulertzeko modua alda dezakete, *normaltzat* jotzen dugun horren parametroak aldatuz (zinema batean dauden eskailera batzuk benetako oztopo bat izan daitezke). Horren ildotik, arazo komun baten inguruan begirada anitzak eraikitzeak errealitatea bera ulertzeko era eralda dezaketen eztabaida-ildoak zabaltzea ahalbidetzen du.

Unibertsaltasunaren eta desberdintasunen arazoa gizabanakoen artean aterabide zaila duen interesen gatazkan bilakatzeko joera duten ikuspegietatik urrun (horien iritzi, subjektuek besteekin harremanetan jarri aurretik, jarrera bat dute), feminismotik jarraian aipatzen den moduan laburbildu daitekeen desberdintasunaren arazoarekin lotutako legatua dago: helburua ez da interesak gehitzen dituen zerrenda bat egitea, desberdintasunetan oinarrituko den eremu komuna eraikitzeke gai izatea baizik, eredu inposatzaileak eta baztertzaileak alde batera utziz<sup>6</sup>.

Nolanahi ere, bizi daitekeen bizitza zerez osatua ote dagoenaren gaineko galderaren ikuspegi formalarekin batera, eztabaida zabala eta sakona egin behar da, haren alderdi guztien ingurukoa. Eztabaidari uko egiteak politikak asmo onez abiaraztea ekar dezake, baina horiek ez dute izango oinarririk edo edukirik, eta ez dute aintzat izango elkarrizketa-prozesuak berak dakarren emaitzaren aberastasuna. Ordezkarien krisialdia, parte-hartzerako eta erabaki politikoak hartzeko egitura klasikoen krisialdia erdian jarri duten egungo eztabaidek ez dute baliorik galtzen. Eztabaida horiek bi kritiken harira datoz: botere finantzario eta ekonomikoek botere politikoen

---

5 Vega Solís, Cristina (2009), *Culturas del cuidado en transición. Espacios, sujetos e imaginarios en una sociedad de migración*, UOC Argitaletxea.

6 Desberdintasunaren feminismoak arazo horri egin behar izan dio aurre bere ibilbide osoan zehar. Baina duela gutxi, mugimendu feministetan benetako kezka egon dela aurkitu dugu, desberdintasunez betetako testuinguru batean subjektu guztiak barne hartuko dituzten politikak eraikitzeke moduaren inguruan.

gaintik gobernatzearen, eta estatuz gaindiko botereen gaineko kritika, horiek agerian utzi baitituzte estatuaren zeregina eta herrialdearen mugen zeregina<sup>7</sup>. Gabezia demokratikoko testuinguru honetan, are egokiagoa suertatzen da herritarrek politikan parte har dezaten bestelako moduak aintzat hartzea.

---

7 Kritika horretan sakontzeko, ikus: Sassen, Saskia (2003), *Contra geografías de la globalización*, Madrid, Traficantes de Sueños; eta Observatorio Metropolitano (2010), *La crisis que viene*, Madrid, Traficantes de Sueños.





### 3. ZER DA BIZI DAITEKEEN BIZITZA?

#### Geure buruari *edukiaren* ikuspegitik galdetzea

---

**B**iziera Onaren edukian murgiltzen bagara: Zein eztabaida zabal ditza-kegu? Zein galdera erantzun beharko genituzke? Hainbat alderdi barne hartzen dituen arazo honen zenbait ertz garbitzen hasi aurretik, bi gai izan behar ditugu kontuan: Lehenengoa, ikuspegi holistiko batetik heltzen diogula da, eta horrexegatik bananduta jorratzen diren, baina elkarren artean lotuta dauden hainbat alderdi sartzen ditugula. Bigarrena da, alderdi horiek zeharkakoak direla, eta horrexegatik gai jakin batzuei heldu ahal izateko, bestelako gobernu-arloen elkarlana beharko dugula, berdintasun arloare-naz gainera. Bereiz badaitezke ere, ezin ditugu ahantzi bi alderdi hauek: osotasunaren dimentsioa eta zeharkakotasuna.

"Bizitza"ri buruz hitz egiten dugunean, gogoan izan behar dugu haren baitan hainbat alderdi lotuta daudela. Atal honen helburua bizitzak barne hartzen dituen alderdi garrantzitsuenetariko batzuen inguruan eztabaidatzea da, geroago eztabaida-prozesuak egon daitezen bide emateko. Premisa horiek ezbaian jartzen ez baditugu, erraza da arazoaren azalean geratzea eta "bizitza" kontzeptuak berak berekin dakarren ezegonkortasuna ikusezin egitea, eta baita bizitza eta kapitala oso bereizita dauden eremu gisa jorratzea ere, horrela, elkarren artean duten lotura estua ikusezin eginez.

#### 3.1. Zainketak, antolamendu politikoaz eta praktikoaz haratago

Zainketak iraunkortasunari buruzko eztabaidaren erdigunean daude. Izan ere, bizitzaren iraunkortasunari buruz hitz egiten dugunean, bizitza zain-tzeari buruz ari gara. Dena den, bi hitz horiek ez dira zehazki sinonimoak, zainketen kontzeptutik ondoriozta daitekeen eduki kritikoa handiagotzen ez badugu. Zainketak ez dira soilik gizartean gertatzen diren jardueratako bat, haatik, eredu sozioekonomiko osoa ezbaian jartzea ahalbidetzen duten

alderdia dira, egungo ereduak ikusezina, doakoa eta feminizatua den zainketa lanari esker soilik biziraun dezakeela agerian jartzen duen alderdia. Horren ildotik, gizarte-harreman guztiak eraldatu behar dira, ez gara etxeetan gertatzen dena soilik konpontzera mugatu behar. Hori beharrezkoa da, baita zainketa-lanei lotutako feminitatearen eraikuntza zalantzan jarri ahal izateko ere.

Horretaz gainera, zainketek funtsezkoa den zerbait adierazten dute, logika kapitalistak ezarritako independentzia idealaren aurrean: bizitza zaugarria da eta elkar mendekotasuna dakar berarekin. Horrek esan nahi du autonomia eta buruaskitasuna bezalako ideiak nagusi izateak gizartean eutsiezina den ondoeza sortzen duela. Beraz, zaintzearen ideia oso erakargarria ez bada ere—eta harreman praktikoko negatiboa irudikatzen badu ere—, behar horietaz jabetzeko beharra dagoela esan nahi du. Orduan, galdetu beharra dago: nola jabetu horietaz?

Zainketei buruzko lan-ardatzean zainketen antolamendu politiko eta praktikoz aritu gara, eta horiek ekitatez eta justizia soziala bezalako irizpideen arabera berrantolatze bideragarritasunaren inguruan galdetzen genion gure buruari. Bizitzaren iraunkortasunari buruzko ardatzean, aldiz, zainketen inguruan egiten dugun galdera bestelakoa da. Zainketak horiek osatzen dituzten zereginetan aletzea posible bada ere, ezin dugu ahaztu pertsonen arteko harremana sortzen duen lana dela, ondasun immateriala dela. Horrexegatik, puntu honi dagokion galderak ez du zerikusirik zainketen berrantolamendurakin, aitzitik: Zainketek zein gizarte-harreman jartzen dute —edo jar dezakete— mahai gainean? Azken finean, zainketen baitan gordeta daude bizi nahi den bizitzaren esanahiarekin lotutako zentzu garrantzitsuak<sup>8</sup>.

Feminismotik ahalegin handiak egin dira historikoki ikusezina izan den lanaren garrantzia aitortze aldera<sup>9</sup>, baina ez da eztabaidarik egin estrategia

---

8 Anderson, Jeanine (2008), "Nuevas políticas sociales de producción y reproducción", Arriagadan, Irma (lank.) (1994), *Futuro de las familias y desafíos para las políticas*, CEPAL – Seminarios y Conferencias Seriea. 52. alea. [http://www.eda.org/publicaciones/xml/9/32699/scc\\_52\\_Familias.pdf](http://www.eda.org/publicaciones/xml/9/32699/scc_52_Familias.pdf)

9 Berrikuspen historikoaren berri izateko: Borderías, Cristina, Carrasco, Cristina; eta Alemany, Carme (lank.) (1994), *Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales*, Bartzelona, Icaria; Carrasco Cristina; Borderías Cristina; eta Torns Teresa (lank.) (2011), *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y política*, Madril, Libros Catarata.

zainketak edozein baldintzatan balioesteak ote denaren inguruan. Zainketek harreman maltzurak eragin ditzakete, adibidez, autonomia sustatu beharrean zainketak inposatzen direnean, edo etxean botere-maila mantentzeko argudio gisa erabiltzen denean, femeninoa den horren orokortasunari balioa kentzearen aurreko estrategia gisa<sup>10</sup>. Gai honetan egin beharreko galdera gakoa hau da: zainketak balioesteak zein neurritan lagun diezaieke subjektibitate femeninoa bestea bezala —besteentzat baliagarria naizen heinean izatea bezala— eraikitzearen inguruko iritzi akritikoei eta sexuen artean desberdintasunezkoak diren harremanei? Batetik, galdetu beharra dago eta zainketen kultura berriak asmatzerik ote dagoen, femeninoa den horri jendaurrean balioa kentzea/etxean balioa ematea bikotea desegingo dutenak, baieztatu ordez. Hala ere, horretarako ezinbestekoa da askatzailerak diren, eta subjektibotasun femeninoa ezbaian jarriko duten figurazioak ikustea. Bestalde, ezin dugu ahaztu zainketak sexuaren arabera banaketa indartzen duen erregimen heterosexual baten esparruan gertatzen direla; eta berregituraketa globalaren testuinguruan, horrek lana etniaren arabera geruzatzea dakarrela. Geure buruari galdetu behar diogu eta zentzurik duen zainketei balioa ematea, sexua/generoa sistema ukitu gabe, edo, aldiz, zainketen ikuspegi kritikoa sustatu behar ote dugun, erregimen sexual (global) jakin baten zati bezala ikusten dituen.

Bestalde, agian, zainketak bazterkeria edo desberdintasunak eragiten dituzten gizarte-harremanak eusteari laguntzen dio. Zainketei balioa emateaz haratago joan nahi duten, eta zainketen edukia ezbaian jarri nahi duten jarreretatik egin beharreko galdera hau da, zer nolako bizitza den zaindu nahi dugun hori. Adibidez: Dagoeneko existitzen diren gizarte-harreman multzo horren baitan zaindu nahi al dugu bizitza? Edo zainketak gizarte-eredu bidezkoago baten eraikuntzan parte hartzea nahi dugu? Hau da, beste bizitza mota bat asmatu nahi al dugu? Lehenengo aukera hautatzen badugu, nahikoa da zainketen garrantzia berreskuratzearekin, merkantilizazioa edo femeninoa den horren eta zainketaren jarrera esentzialisten indartzea bezalako atzemandako gertakari posibleen arazoan sartu gabe; aldiz, bigarren aukera hautatuz gero, dagoeneko badagoen horri balioa emateaz gainera, zer nolako eredu nahi dugun irudikatzeko eta zein baz-

---

10 Izquierdo, M<sup>a</sup> Jesús (1998), *El malestar en la desigualdad*, Madril, Cátedra.

tertu nahi dugun jakiteko ahalegin handia egin beharko dugu. Bigarren aukera hori eginez gero, zainketen merkantilizazioaren inguruan errezeloa sortzen da eta dimentsio sortzailea, funtsezkoa zabaltzen da eztabaidan.

Bestela esanda: aintzat izan behar da zainketei balioa eman behar zaiola aldarrikatzen denean, horrek ez duela zertan esan nahi zainketa eredu hori eusten duen eredu sozioekonomiko eta sexualari egiturazko kritika egiten zaionik. Ez da nahikoa "bizitza" babestearekin; zeregina ez da dagoeneko existitzen diren zainketei so egitea, horiek berez positiboak balira bezala aintzatetsiz, baizik eta gizarte-lotura berriak sortzea eta eraikitzea. Eta, hain zuzen ere, horixe da azpimarratu nahi duguna.

Horretarako, estrategia bikoitza dugu. Batetik, dokumentu honetan azaltzen den osotasunaren ikuspegia hartuko dugu erreferentzia gisa: zainketak aintzatesteko orduan, beti lotu behar dira bizitzaren beste alderdiekin (sexuala, sinbolikoa, ekonomikoa, lanekoa, hirigintzakoa edo ekologikoa); gizarte-harremanen multzo handiago baten baitan gertatzen dira beti. Bestalde, zainketen bitartez, gorputzen zaugarritasuna jartzen da agerian. Ezin da ukatu besteen eraginpean gauden izakiak garenik. Zaugarritasunak bultzatzen gaita besteekin harremanak izatera; elkar mendekotasuna dugun izakiak garela erakusten du horrek. Egungo gizarte-antolamendu ereduak ukatu egiten du errealitate hori, bi zentzutan: ereduaren erdigunean buruaskia den gizabanakoa jartzen du (maskulinoa, baliabideak dituen, heterosexuala), bere buruarekin nahikoa duena eta egunero jasotzen dituen zainketak ikusezin egiten dira. Egungo subjektibotasunaren bihotzean kokatzen du askatasunaren kontzeptu ideala, bertan existentzia bakoitza banako proiektua balitz bezala ulertzen da, besteekin lehian dagoen proiektu bat bezala, taldeari gertatzen zaionarekin eta besteekiko harremanekin zerikusirik ez duen proiektu bat bezala. Testuinguru horretan, egungo eztabaida feministei buruz, galdera hau egin diezaiokegu gure buruari: zainketen beharra bizitzaren salbuespen bat bezala ulertzen al dugu (profesionalizatuz edo merkantilizatuz konpon daitekeen noizean behingo behar bat bezala? Edo, aldiz, bizitzan zehar dagoen zerbait dela ulertzen al dugu (hori horrela bada, zereginak gainditu egiten ditu eta bizimoduak eraikiberritu beharko ditugu)? Edo bizitza sailetan bana ditzakegun behar edo zereginen batuketa gisa ulertzen al dugu (zenbatu, kontsumitu eta konponduak izan daitezken eska dezakegu)? Edo bizitza mugarriztatze edo antolatze nahiak gainditzten dituen esperientzia holistikoa gisa ulertzen dugu?

Zainketen lanaren izaera aintzat hartzen badugu, *work never done* motakoa dela ikus dezakegu: inoiz amaitzen ez den lana da. Beste pertsoneri ongizatea emateko helburua duten jarduerak aipatzen orduan, ezin ditugu ahaztu zainketaren aurrebaldintzak izeneko horiek<sup>11</sup>, mugarrizten zaila den zereginen multzoa. Zainketak ez dira soilik arropak garbitzea, sukaldatzea, garbitzea, gorputza txukuntzea eta abar, arreta, txera, aurreikuspena eta aurrea hartzea ere badira, elkarriketatzea, gatazkak konpontzea eta era guztietako izapideak kudeatzea. Zaila da imajinatzea zein unetan ez dauden bertan besteek ematen dizkiguten, edo besteei ematen dizkiegun zainketak. Etxeko lanaren kasu paradigmaticoari so eginez gero, ondorioa are bista-koagoa gertatzen da, elementu horiek guztiak, sarritan, akigarriak diren lanaldietan metatzen direlako. Beraz, irudikatzen dugun gizarte-eredua ezin da oinarritu zainketak salbuespen gisa aintzatestean, zainketak giza-existentziaren gune zentralizat ulertzean baizik.

Zer nolako lotura mota eraiki behar dugu premisa hori aintzat hartzen badugu, alegia, izaki zaugarriak garela eta elkarrekiko mendekotasuna dugula aintzat hartzen badugu? Besteen zainketa idealizatua egitera eta merkatuen etekinaren logikaren aurrekoak direla ahaztera eramanez gaitzaketen erantzun azkarren aurrean, zainketetara itzultzearen alde egin aurretik, berriro ere galdetu behar diogu gure buruari ez ari ote garen zainketen alderdi negatiboa kanporatzen. Egin nahi dugun zerbait al dira? Edo atseginak izateaz urrun, M<sup>a</sup> Jesús Izquierdoren hitzetan "izurritik bezala ihes egitea" eragiten dute? Zainketen inguruan inolako mistikarik ez badago, nahikoa ote horiek banatzearekin edo beharrezkoa ote da horiek atseginago izan daitezen moduak bilatzea?<sup>12</sup> Zein gizarte eredu irudikatzen dugu? Zeregin errepikakorrak, ordainsari antibalentedunak<sup>13</sup> eta

---

11 Orozco, Amaia P. eta Gil, Silvia L.(2011), *Desigualdades a flor de piel: Las cadenas globales de cuidados*, Madril, UN- INSTRAW.

12 Zainketen alderdi "ezatseginean" hiru elementu nagusik hartzen dute parte: egunero errepikatzearen monotonia (ezin zaio egiteari utzi); derrigortasuna (zainketa egiteko orduan aukera maila txikiagoa dagoenean, adibidez, ez denean bizitza-proiektu baten baitan seme-alabak zaintzeko egiten dena bezalakoa); existentziaren dimentsio negatiboa (hiltzerian dauden agureak zaintzea –bizitzaren ikur diren haurrak zaintzearekin alderatuta, oso gogorra izan daiteke heriotza-prozesu batean zaintzea–, triste edo deprimituta dauden pertsonak zaintzea edo nolabaiteko mina jasaten duten pertsonak zaintzea).

13 Ikuspegi marxista batetik, zainketetan subjektibotasun femeninoaren eraikuntzak duen arazo nagusietako bat da bere lanaren balioa beste inorengan eragiten duen erantzunak ematen duela; emakumeak bere burua bere lanarekin identifikatzen badu, bere

murriztu daitezkeen zeregin ezatseginak ahalbidetuko dituen? Zainketen derrigortasunarekin hautsi behar da edo ekidin ezin daitezkeen derrigortasun elementu bat dagoela uste dugu? Derrigortasun hori onartzen badugu, estrategia egingarria al da zainketen greban bezala zaintzeari uko egitea, edo zainketaren inguruan kooperaziorako eredu alternatiboak eraiki nahi ditugu? Estatuak behar ditugun zainketa batzuk bermatu behar al ditu? Zein zaintza-behar ditugu?<sup>14</sup> Zainketa kolektibizatzeke moduak sustatu behar al dira? Merkatuarenak edota estatuarenak ez diren bestelako bideetatik zainketak elkarrekikotasun handiagoz igaro daitezkeen bermatuko duten bizimodu komunitarioagoak egon behar al dira? Hori guztia izan behar al dugu aintzat? Zein neurritan?

Amaitzeko, galdera bikoitz bat dugu. Batetik, nola alboratu ditzakegun existentziaren indibidualizazioa eragiten duten nozioak, zaurgarritasunak eraikitzen duen gune nagusiaren ulermena ekiditen duten heinean. Hala ere, zaurgarritasun hori egiaztatzeak ez dakar berekin berehala zainketa-rako prest egotea<sup>15</sup>; zainketa idealizatzen duten jarrera esentzialistatan ez jausteko, beharrezkoa da zainketen dimentsio negatiboa ere ikustea, eta hori aintzat hartzea eraiki nahi dugun gizarte-ereduaren inguruan pentsatzeko orduan. Bestalde, imajinatu behar dugu zer nolako gizarte-eredua nahi dugun: Estatuak zein zeregin bete behar duen, zein kolektibotasun mota nahi ditugu, estatuarena ez den autogestiorako zein gune nahi ditugun galdetu behar diogu gure buruari.

---

balioespena hirugarrenen onespeneraren arabera izango da. Merkatuan soldata bat jasotzen duen langileak ez du horrelako balioespenik jasotzen, berez neurri bat baita. (Izquierdo, María Jesús (2003), "Del sexismo y la mercantilización del cuidado a su socialización: Hacia una política democrática del cuidado", SARE).

14 Eztabaida horrek Ekonomia eta Lan Politikan proposatzen denarekin du zerikusia. Zainketaren alderdi batzuk estali behar direla uste badugu, dagoeneko gizarteak behar dituen lanak aipatzen ari gara.

15 Judith Butleren arabera, zaurgarritasunak, bestearen aurrean zabalik agertzeak, hiltzeko eta babesteko nahiak pizten ditu, minduak izatearen aurreko erreakzio gisa. Horrek neurri batean azal dezake zaurgarritasuna azaltzeko garaian dagoen zailtasun inkontziente hori. Eta zaurgarritasuna zaintzeko nahiak behera egitea ekar dezake. Butler, Judith (2006), *Vidas precarias. El poder del duelo y la violencia*, Buenos Aires, Paidós. 163. orritik aurrera.

### 3.2. Maskulinitatearen eta feminitatearen eraikuntza; eredu heteronormatiboa?

Zainketei buruz hitz egiten dugunean, sarritan ez dira ezbaian jartzen inbrikatutako genero-alderdiak. Baina bizi daitekeen bizitza zer den galdetzen badiogu gure buruari, ezin dugu ukitu gabe utzi horren azpian dauden erregimen sexual heterosexuala, generoaren binarismoaren zurruntasuna eta feminitatearen eraikuntzaren arazoa; nola gizarteratu diren emakumean zaintzaile gisa, nola kendu zaien balioa kulturalki, nola kendu zaizkien haien nahiak eta nola bizi dituzten haien buruari gehiegi eskatzearen tentsioak.<sup>16</sup> Horrek zera esan nahi du, ez dela nahikoa zainketak banatzearekin edo gizartea zainketak ardatz gisa hartuta antolatzearekin, ez badira genero-sozializazioa, maskulinitatea eta feminitatea eraikitzekeo desberdintasunez betetako moduak, eta arau heterosexuala ezbaian jartzen. Ezin dugu ahaztu subjektibotasunaren arazoa aintzat hartzen ez duen zainketen antolamendu bidezko eta zuzen bat egiteko aldarrikapenak teknikotzat jo dezakegun eredu tekniko bat sor dezakeela, kudeaketari heltzen dion, baina gizabanakoek lan egiten duten genero-irudi edo -ideologiei so egiten ez dien ereduak.

Hausnarketa hori bereziki garrantzitsua da bi arrazoi direla eta:

1. Feminitatea bestearen nahiari arreta berezia eskainiz eraikitzen da (besteak nigandik nahi duena naiz). Hori indartu egiten da zaintza-lanarekin, bermatuta ez dagoen bestearen erantzunaren arabera balioesten baita.
2. Erregimen heterosexualak lanaren banaketa sexuala du oinarri. Emakume zaintzailea / gizon janari-hornitzailea ereduak erregimen sexual horretan du korrelatua. Horri dagokionez, Gayle Rubin en ideiarekin ados gaude; haren iritziz, generoaren eta sexuaren arteko harremana dago, nahiaren joera heterosexualean eta lanaren banaketa sexuallean oinarritzen dena. Horrek zera esan nahi du, lanaren banaketa

---

<sup>16</sup> Ikusi dugun bezala, alderdi horiek funtsezkoak dira zainketetan sortzen diren harremanetan. Eztabaida korapilatsu horretan sakontzeko lekua ez dela uste dugun arren, aurrerago adierazten dugu femininoa den horren esperientziak gorputzean tentsio handiak eragin ditzakeela eta horrek osasunaren gaineko arriskuak eragin ditzakeela.

sexuala desegiteko, erregimen heterosexuala ezbaian jarri behar dela. Haratago joanda ere, eta lanaren geruzatze sexual eta etniko berria batez hitz eginda ere, gure iritziz, oraindik ere indarrean dira generoarekin (zaintzaileak emakume migratzaileak izaten jarraitzen dute) eta sexuarekin lotutako elementuak (zaintzaileen sexua tabua da, heterosexualtasuna auresuposatu egiten da eta, emakume gisa, eskema sexualera egokitzea espero da haiengandik). Antzera, Carol Patemaek jatorrizko kontratu sexuala dagoela dio, gizon libreen arteko kontratu sozialaren kontakizunaren aurreko publiko/pribatuaren arteko banaketaren oinarri dena. Kontratu horren berregituraketari buruz hitz egin badezakegu ere, ezinbestekoa da ulertzea generoa eta sexua oraindik bertan daudela, nahiz eta arraza, klasea eta etnia bezalako aldagaiekin batera azaldu arren.

Feminismotik funtsezko ekarpenak egin zaizkio eztabaida horri, eta honela labur daiteke: subjektibotasuna gai politiko bilakatu da, harreman sexualen eta maitasun-harremanen pribatutasuna ezbaian jartzearekin batera. Hori oinarrizkoa da bizitzaren kontzeptuaren inguruan hausnartu nahi badugu. Bizitza iraunkorra imajinatzen dugunean, zer nolako irudi sexualak dakartza horrek? Eztabaidarako hiru puntu nabarmentzen ditugu:

1. *Pertsonala den horren dimentsio politikoa nabarmendu duten analisiak.* Horren ildotik, helburua ez da soilik lortu behar diren eskubide-multzok egituratzea, baizik eta egunerokotasunean ezbaian jartzea txerazko harremanak, sexualak eta maitasunezkoak. Feminismotik nabarmendu da bizitzaren egunerokotasunean dauden alderdien eraldaketa eragin dezaketen adierazpide kontrakulturalak sortu behar direla, eta ez aurretik aipatu dena bezalako politika tekniko bat garatu.
2. *Subjektibitate femeninoaren eraikuntzan sakondu duten analisiak,* ez soilik alderdi material marxistetatik, baizik eta sinboliko psikoanalistetatik egin direnak ere. Horrek M<sup>a</sup> Jesús Izquierdoren hitzetan kaltetutako subjektua denaren berri ematea ahalbidetzen du. Batetik, bere nahi propioa kendu zaioneko subjektu esplotatua da. Horixe da zainketekin lotutako gordiar korapiloa: zainketak besteen gainean boterea eta kontrola izateko, eta nahi horiek kentzeko iturri izan daitezke. Bestalde, gorputz femeninoaren gainean historikoki kendu zaion ba-



lioaren eta, konpentsazio gisa, ezartzen den norik bere buruari gehiegi eskatze horren arteko tentsioa dago. Hurrengo atalean ikusiko dugu horrek gaixotasunak eragin ditzakeen arrisku-faktorea izan daitekeela. Gauza da ea hitz egin dezakegun zainketen banaketari buruz, subjektibitate femeninoarekin lotutako gai horiek aipatu gabe, eta maskulinoa eraikitzeke izan diren pribilegioak aipatu gabe. *Zainketen bestelako kulturak* aipatzen ditugunean, zainketak (gehiago edo zentralak) jasotzeko behar hutsa baieztatzeak subjektibotasunaren arazoa ukitu gabe uztearen arazoa dakarrela esan nahi dugu.

3. Ekoizpen eredu bat, beti, gizarte-kooperazio modu baten arabera dela azpimarratu duten analisiak. Hau da: ekoizpen-maila ezin da bereizi bizitza sexuala eta generoa antolatzeke moduz. Hori horrela, ekoizpen-sistema fordiarrari aipatutako emakume zaintzailea/gizon janari-hornitzailea eredupean garatzen den familia nuklearra dago, hau da, erregimen heterosexuala eta genero-binarismo zurrunda eredu behar ditu. Malgutasuna, komunikazioa, informatizazioa, superekoizpena eta kontsumoa ezaugarri dituen ekoizpen-eredu postfordiarrari (lana denaren eta ez denaren arteko mugak hautsi baitira) zein gizarte-kooperazio modu dagokion galdetzea da gaioetako bat. Bizikidetzaren eredu berriak, bestelako familiak aipatzen dira: Ekoizpen-eredu berri horretan eskema heterosexuala eta genero-binarismoaren zurruntasuna aldatu al dira? Eraldaketarako aukera berriak ematen al ditu? Aldaketa horiek ekoizpen-moduekin nolabait hautsiz gertatzen dira edo horien emaitza dira?

Oro har, hemen agertzen den eztabaida hau da: Posible al da zaintza-lana sexualtasunarengandik eta genero-eraikuntzarengandik banatzea? Zein neurritan ez gara mugatu behar hobeto edo gehiago zaintzeari buruz hitz egitera? Zein neurritan eraldatu behar ditugu gizartea egituratzen duten genero- eta sexu-harremanak? Hau da, zein neurritan ez da soilik aldaketa politikoa behar dena, eta horretaz gainera beharrezkoa izatea gehiago luzatu ezin daitekeen subjektibitatearen (sexualaren) inguruko galderak egitea?

### **3.3. Osasuna, emakumeen artean ikusezina den adierazlea**

Egungo krisialdi testuinguruan, eztabaidarik garrantzitsuenetariko bat publikoa den horrekin lotutakoa da. Krisialdi honetatik irteteko gastuak murriztu behar ote direnaren edo, alderantziz, handitu behar ote direnaren inguruko eztabaida, hain zuzen ere. Esku pribatizatzaileen aurrean publikoa den hori babestea edo saltzea dira aukerak, azken horrek kostu sozialak murriztea ekarriko lukeela, "ahal duenak ordain dezala» logika baliatuta. Osasungintzari dagokionez, murrizketek eragin negatiboak dituzte emakumeen gain, bi zentzutan: ospitaleratze kasuetan eta epe luzeko zainketetan laguntzaile nagusiak izanik, oherik ez egoteak, itxaron zerrenda luzeak egoteak edo behar adina langile edo baliabide ez izateak, zainketen zama nabarmen handitzen eta areagotzen duelako. Baina, gainera, emakumeak direlako lehen mailako arreta erabiltzaile nagusiak, ez gaixotasun kronikoak gehiago jasaten dituztelako soilik (horiek presazkoa ez den baina denboran zehar irauten duen arreta behar dute), baizik eta gaixo dauden beste pertsonen laguntzaileak direlako.

Hala ere, ezin ditugu soilik alderdi horiek aintzat hartu publikoa den horren babesaren gaineko eztabaidarako; beharrezkoa da urrats bat gehiago ematea eta zein osasun-arreta eredu babesten ari ote garen galdetzea. Horretarako, galdera bikoitza garatu behar dugu. Batetik, galdetu behar dugu ea osasuna soilik gaixotasunen aurrean babestea den, edo prebentzioa ere osasuna ote den. Bestetik, beharrezkoa da galdetzea ea egungo medikuntza biztanleriaren arazoei arreta emateko gai izaten ari den, emakumeek izaten dituzten gaixotasunei dagokienean, nagusiki.

Gaixotasunetan, hainbat alderdi daude elkarren artean lotuta: biologikoak, psikologikoak, sozialak eta ingurumenarekin lotutakoak. Bizitza iraunkorra zer den galdetzeko, plano horietan bizitza osasuntsua izatearen oinarriak ezarri behar dira. Galdera bikoitzarekin jarraituz, aintzat izan behar dugu ea, ikuspegi holistikoa horretatik, egun osasunean eragin kaltegarria duten arrisku-faktoreak dauden, zein zentzutan ekidin ditzakegun faktore horiek, eta ea eragiten dituzten gaixotasunak diagnostikatzerik dagoen.

## 1/ Arrisku-faktoreak:

- **Ingurumenarekin lotutakoak:** XX. mendeko industrializazio prozesuekin batera, osasunaren gaineko kalteak eragin ditzaketen gai artifizialak sortu dira. Gai toxiko horietako batzuk debekatu egiten dira denborak aurrera egin ahala, horien eragin kaltegarriak ezagutzen direnean; beste batzuk, aldiz, inguruan geratzen dira, baita egunero kontsumitzen ditugun produktuetan ere. Hainbat arrazoi daude (ezagutza eza, ekoizpen-kostuak murriztea, industria farmazeutikoen interes ekonomikoak), baina bada arrazoi nagusi bat: metatze-logikaren ondorioz, osasuna zaintzea ez da abiapuntutzat hartzen.

Badira gai toxiko horiek osasunaren gainean duten eragina ulertzea ahalbidetzen duten ikerlanak, baina beharrezkoa da gehiago sakontzea, substantzia berriak erabiltzen direlako etengabe, eta maiz gaudelako horien eraginpean.<sup>17</sup> Jaten, edaten eta arnasten duguna arrisku-faktore handi bilakatzen ari da. Petrolioaren deribatuek, pestizidek, haragian dauden hormonek, aurpegirako eta gorputzerako kremek, makillajeak, garbitzeko produktuek edo botika jakin batzuek organismoaren funtzionamendua alda dezakete. Ikuspegi feminista batetik, zilegi da galdetzea ea eragin hori maila berean gertatzen den gizon eta emakumeen artean, eta ea zergatik den handiagoa emakumeen artean. Carme Valls-Llobet Doktoreak dio gaixotzeko dugun modua desberdina dela, eta emakumeen artean handiagoa izatearen arrazoa substantzia horiek koipetan kokatzen direla eta disruptore endokrino bezala jarduten dutela da, eta, hori horrela, gaixotasun autoinmuneak, gabezia metabolikoak eta hormona arazoak eragiten dituzte. Sortzen dituzten gaixotasunek ezintasun handiak eragin ditzakete, nekea eta mina izanik horien izendatzaile komuna<sup>18</sup>.

- **Sentiberatasun Kimiko Anizkoitza (SKA)** gorputzak zenbait gai toxikoren aurrean duen intolerantziak eragindako gaixotasuna da, nerbio-sistema zentralari, hezur- eta muskulu-sistemari, aparatu

---

17 Jara, Miguel (2009), *La salud que viene. Nuevas enfermedades y el marketing del miedo*, Península, Madril.

18 Valls-Llobet, Carme (2009), *Mujeres invisibles*, Bartzelona, Debolsillo,; eta Valls-Llobet, Carme (2010), *Mujeres, salud y poder*, Cátedra, Valentzia,.

gastrointestinalari eta urogenitalari eragiten diena. Ez dira kasu isolatuak, izan ere, adostasuna dago gaixotasun hori bitxi gisa sailkatzerik ez dagoela, eta munduko Iparraldean hedatzen ari den gaixotasuna baieztatzeko orduan<sup>19</sup>. Joaquín Fernández Solá doktoreak, Bartzelonako Hospital Clíniceko Neke Kronikoaren Unitate Diziplina anitzeko koordinatzaileak, baieztatu du egungo gai toxikoen eraginpean egote mailak emakumeei gizonei baino zortzi bider gehiago eragingo dien SKA pandemia baten aurrean gaudela<sup>20</sup>. Hemen egin behar den galdera hau da: Iraunkorra al da biztanleria gaixotzen duen garapen eredu bat edo, aldiz, beharrezkoa al da substantzia horren aurreko alternatibak bilatzea, horien ekoizpen kostua handiagoa izan arren? Hau da, bizitzaren iraunkortasuna jarri behar al dugu erdian, metatze-logikaren ordez?

- **Elektrosentiberatasuna** da Miguel Jarak aipatu azterlanean izendatzen duen beste gaixotasun berri horietako bat. SKArekin gertatzen denaren antzera, Elektrosentiberatasuna sistema endokrinoaren, neurologikoaren eta nerbio-sistema zentralaren asaldura bat da, telefonia mugikorraren antenek, azken belaunaldiko telefonia hargailuek, wi-fiak eta haririk gabeko telefonoek igortzen dituzten uhin elektromagnetikoen eragindakoa. Eragin handiagoa du emakumeen gain gizoneen gain baino, arrazoi berberak direla medio. Gakoa da eta aurrerabidea eta teknologia berrien agerpena ondorio kaltegarri horiekin lotuta

---

19 Biztanleriaren % 5ari eragiten diola kalkulatu da. Intolerantzia eta Sentiberatasun Kimiko Anizkoitzeko Unitateak (I/SKA) prestatutako Testua. Unitatearen koordinatzailea: Ann M. Cuscó. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.institutferrran.org/intolerancia\\_quimica.htm](http://www.institutferrran.org/intolerancia_quimica.htm)

20 Berta Chulvik Istars aldizkarian egindako elkarrizketa, 2011ko uztaila. "Azterlanen arabera, biztanleriaren % 35ak jasan du bizitzaren uneraren batean hipersentsibilitate fenomenoren bat, baina horrek ez dio eragin gaixotasun iraunkorrik. % 2 eta % 5 bitartean dira sentiberatasun kimiko anizkoitzaren irizpideak betetze dituztenak. 2.000 pertsona bakoitzeko 1 kasu larria da. Emakumeen gaineko eragina, gizoneen gainekoa baino zortzi bider handiagoa da. Oro har, ohikoagoa da emakumeen artean, hormonoa feminoek, estrogenoek, burmuin mailako sentiberatzea indartzen dutelako. Hala ere, gaur egun toxikoen eraginpean egotearen maila dela eta, pandemia baten hastapenetan gaude". (Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.istas.net/pe/articulo.asp?num=53&pag=10&titulo=Joaquim-Fernandez-Sol%E0-medico-Con-los-actuales-niveles-de-exposicion-a-toxicos-nos-enfrentamos-a-una-pandemia>)

egon behar ote diren, edo posible ote den alternatibak bilatzea aurrerabide teknologiko garrantzitsuei uko egin gabe. Badaude ildo horretan egindako proposamenak.

- **Gaixotasun ikusezinak:** Gizon eta emakumeek gaixotzeko modu desberdinak baditugu, *desberdintasunaren mediku-zientzia* existitu beharko litzateke. Alabaina, biologiaren alderdi femeninoaren berezitasunak aintzat hartzen duen begirada medikorik ez egoteaz gainera, berezitasun horiek ikusezin bihurtzen dira alderdi psikologikoak soilik jorratuz. Horren ondorioz, gaixotasun kronikoak ez dira modu egokian diagnostikatzen, botika gehiegi ematen da, eta hainbat urteren ostean haien ondoezarentzat erantzunik aurkitzen ez dutenei tratamendurik ez emateagatik, edo egoera psikologikoagatik bestelako gaixotasunak sortzen dira. Medikuntzan genero-joera bat dago, honela laburbiltzen duguna:
  - estandar mediko androzentrikoekin ebaluatzen da
  - mediku-jardueran eskema heteronormatiboak egotea –sexu-osasuna ugalketa-osasunera murriztea, intersexualtasuna eta transexualtasuna patologizatzea eta medikalizatzea; ama lesbiarriei intseminazio artifizial tratamendua ukatu zaizkieneko kasuak–
  - diagnostiko egokia egin ahal izateko beharrezkoak diren probak egin aurretik gaixotasuna egoera emozional eta psikologiko eze-gonkorrei egoztea
  - gutxiagotasuna normalizatzea, maiz gertatzen diren gabezia egoera horiek "normala" den horrekin nahastuz
  - menstruazioak osasunaren adierazle gisa duen garrantzia modu sistematikoan ukatzea
  - sistema endokrinoak gorputzaren funtzionamenduan eta osasun egoeran duen zeregina gutxiestea; eta,
  - gaixoek haien gorputzaren eta osasunaren gainean garatu duten jakintzari balioa kentzea, *medikuen jakintza adituaren* aurrean, diagnostikoari zein sendabideari dagokionez. Ildo horretan diogu harreman botereak sortzen direla, emakumeen kasuan areagotu egiten direnak.

Horrek guztiak gaixotasunen ikusezintasuna eragiten du, senda daitezkeen gaixotasunak kroniko bilakatzea, botika gehiegi hartzea eta bestelako gaixotasunak sortzea ondoriotzat ekarriz. Hori dela eta, ikusezintasuna arrisku-faktore bat da. Kasu honetan zabaldu beharreko eztabaida, zientzian eta tratamendu medikoan inbrikatutako genero-joerekin hausteko abiaraz daitezkeen mekanismoen ingurukoa da.

- **Psikosozialak:** Pertsonen esperientzia psikosozialak osasun-egoerari eragiten dio. Dena den, hipotesi horrek ez du inoiz ordezkatu behar aipatutako faktore biologien azterketa. Emakumeen osasunaren gainean ondorio kaltegarriak izan ditzaketen lau alderdi psikosozialak laburbilduko ditugu:
  - Egiturazko genero-desberdintasuna. Emakumeen balio-gutxitze sinbolikoa hainbat erataria agertzen da esperientzia singularrean. Aldeko ingurune batean bizi arren, historia inkontziente kolektiboan idatzita dago. Eraketa subjektibo femeninoan gertatzen den balio-gutxitze horren aurreko erantzun bat da nork bere buruari gehiegi eskatzea eta perfekzioa etengabe bilatzea. "Zuk ez duzu balio" eta "ahal dudala frogatu behar dut" horien arteko konbinazioak arazo psikologikoak eta fisikoak eragin ditzaketen tentsioak sortzen ditu. Bizitza ezegonkorreko inguruneetan, tentsio hori ere badago, eta lan malguaren eta egote / ez egote bikoitzarekin beregituratzen da; dagoeneko ez da etxean perfekzionatzen, baizik eta eguneroko bizitza inguru lehiakor batean eusten, aldi baterako lanaren. hiri handietako bizitzaren lastertasunaren eta etxearen artean.
  - *Zainketa lanen zama* akigarriak diren lanaldiak sortzeaz gainera, estresak eragindako asaldura biologikoak sor ditzake (adibidez, loaren erritmoan, ziklo menstrualetan), edo gaixo edo agureen zaintzaren kasuan, zama fisikoarekin lotutako gaixotasunak sor ditzake. Horretaz gain, etengabe gogobete gabe bizitzearen sentazioa sor dezake, zentzu bikoitzean. Batetik, denbora, ahaleginak eta txerak eskaintzen dira gizarteak aintzatesten eta balioesten duen jardura batean. Bestetik, ongizatea sortzeko buru-belarri aritzen den emakumeak saritua izatea espero du, oharkabean edo ohar-

tuta. Sari hori soilik zainketak jasotzen duen pertsonak egiten duen balioespenetik etor daiteke: lanaren ordainketa bakarria erantzun gogobetegarria edo negatiboa da. Bere lanarekin identifikatzen direnek, etengabeen bestearen erantzunaren zain egoteak eragiten duen zaurgarritasuna barneratzen amaituko dute (bestearentzat izatea). Harreman konplexuak eta, zenbaitetan, maltzurak sortzeaz gainera, etengabeko atsekabea sor daiteke. Ez da soilik familiakide guztien zama gainean eramatea eta arazoan, beharren, nahien eta abarren arteko oreka mantentzea; horri gehitu behar zaio lana aitortu eta balioetsiko ote den jakiterik ez dagoela.

- Lan merkatuko ezegonkortasuna. Gauza jakina da emakumeek betetzen dituztela prestakuntza txikiena behar duten lanpostuak eta ordainsaririk txarrenak dituztela; Ekonomia eta Lan Politikaren dokumentuan islatu den bezala. Krisialdi garaitan, emakumeek izan ohi dute langabezia-tasarik handiena. Horrek autonomia-kuotak txikiagoak izaten direla esan nahi du, etxean seme-alabak daudenean eta estatuaren laguntzak jasotzen ez direnean, batez ere. Emakume migratzaile, transexual eta lesbien kasuan, ezegonkortasuna areagotu egin ohi da hainbat alderditan, haien izaeragatik.
- Bizitzari eusteko egitura sozialik eta kolektiborik ez egotea. Existenziaren pribatizazioaren (ongizate estatua desegituratzea, bizitza merkantilizatzea, independentzia idealaren hegemonia) aurrean, isolamendu, bakardade eta lehiakortasun egoerak sortzen dira. Emakumeen kasuan, koltxoi sozialik ez izateak zainketen zama handituko dela esan nahi du (zainketen erantzukizunak ez du behera egiten, horretarako dituzten baliabideek bai, ordea); bestalde, zenbait faktore elkartzen direnean, areagotu egiten dira bizitzaren pribatizazioaren ondoriozko arazoak, gorputzean ere ondorioak sortuz, "arimaren gaixotasunak" izenekoak (depresioa, antsietatea, apatia, frustrazioa, eta abar) sortuz, esaterako. Dena den, egitura sozialik gabeko egoeratan ere, emakumeak dira autogestionatutako zainketa sareetako, elkarri babesa emateko sareetako eta nork bere burua enplegatzeke proiektuetako lehenengo protagonistak.

Faktore psikosozial horiek ikusita, osasunaren gainean eragina duten alderdiak hainbat direla esan dezakegu; beraz, eraikitzen dugun gizarte motak biztanleria osasuntsua edo osasun arazoak dituen sor dezake.

Gaixotzen den biztanleriak, beraz, garapen eredu negatibo bat nagusi dela adierazten du. Berrero ere, zer bizitza mota eutsi ote nahi dugunaren inguruko galdera sortzen da.

## 2/ Prebentzioa eta diagnostikoa

Aurretik esandako guztiak lehenengo ondorio batera garamatza: osasuna dugun bizi ereduaren araberakoa da, beraz, osasuna zaintzeak ez du soilik zerikusia gaixotasuna arintzearekin, baizik eta *bizitza osasuntsua izateko bizi-baldintzak sortzearekin*. Horrek adierazten du *beharrezkoak diren aldaketak sistemikoak izan behar direla*. Aldaketa horren edukia unean egiten ari den eztabaidaren zati bat izan arren, estrategien atalean arreta eskainiko diegu zenbait punturi, norabide horretan zenbait jarraibide eman baititzakete. Ideia orokorra gaixotasuna prebenitzean datza, horretarako egokiak izango diren inguruneak sortuz (ingurumenari, alderdi psikosozia-lei eta biologikoei dagokienez); bizirik dauden organismoekiko oldarkorrak izango ez diren inguruneak sortuz, ingurumenak eta bizimoduen gorputzean eragina dutenaren premisan oinarrituta.

Egun, ingurumenarekin lotutako gaixotasun berriak (SKA, Elektrosentiberatasuna, Neke Kronikoa, Fibromialgia) jasaten dituzten pertsona kopurua gora egiten ari da. Bestalde, biztanleriaren gogo-aldarteak eta egoera mentalak eragindako *arimaren gaixotasunek* ere gora egin dute azken hamarkadetan; aipatzekoa da AEB bezalako herrialde kapitalistatan, desberdintasun handiak jota dauden herrialdeetan eta oinarrizko gizarte eskubideak murriztu diren herrialdeetan (Grezian<sup>21</sup>, adibidez) nagusitzen direla. Zer egin dezakegu, orduan, beranduegi denean eta gaixotasuna gorputzean kokatu denean? Estrategiei buruzko atalean, diagnostikoarekin lotutako zenbait proposamen jorratu ditugu.

Feminismotik, funtsezkoa da publikoa den horren babesteko beharra azpimarratzea, eta begirada mediko androzentrikoak batez ere emakumeei eragiten dieten gaixotasunen diagnostikoa eta sendabideak aurkitzea zailtzen duen genero-joera handia duela azpimarratzea. Horretaz gainera, terapia alternatibo pribatuen erabilerak gora egin izanak (aipatu inguru-

---

21 Suizidio-tasa txikiena zuen herrialdea izatetik, 2008tik aurrera, tasarik handiena edukitzera igaro da.



men-gaixotasunen hazkundeari lotuta dago), horiek osasungintza publikoan txertatu behar ote direnaren inguruko eztabaida sortzen du; bestela, osasungintza publikoaren alde egitearen eta beste lekuetan egiten den medikuntzaren benetako erabiltzaile izatearen paradoxan eror gaitezke. Gakoa da, batetik, boterearen eta osasunaren arteko harremanak hausteko moduaren inguruan hausnartzea; bestetik, benetan inklusiboa eta eraldatzailea izango den mediku-zientzia eratzeko moduaren inguruan hausnartzea; eta, azkenik, galdetzea ea irtenbide pribatuak eman nahi dizkiogun gaixotasunari, edo erantzun kolektiboak eraikitzeke ahalegina egin behar ote dugun.

### **3.4. Hiri-hazkundera, noraino? Eta, batez ere, nola?**

Biziera Ona garapen mugagabearekin erkatzen badugu, zein ondorio ditu horrek nahi dugun hiri motari dagokionez? Deshazkundera iradokitzen duten proposamenek horren inguruan pentsatzeko arrastoak ematen dizkigute, hiriek ingurumena, tokiko ekonomiak eta elikadura subiranotasuna errespetatu behar dutela diotenean, eta ingurune osasungarriak eta kutsatu gabek, mugikortasunerako baliabide alternatiboak aipatzen dituztenean. Horretaz gainera, hirietan dagoeneko existitzen diren eraikinak eta guneak ahal den neurrian leheneratu behar direla adierazten dute, lo-hirien ereduaren pean dagoen hirien kanpoaldea hedatzearen ideia aurrean.

Hedapen horren premisatako bat gizakien inolako mugarik gabeko hegemonia da. Ikusmolde horren korrelatua nork bere burua aski izatearen eta berehalakotasunaren ideietan du: ahaztu egin da inguruarekiko eta ingurumenarekiko *ekomendetasuna* dugula, eta ez dira aintzat hartzen hazkunderak berak, eta hori egiteko moduak, epe luzean izan ditzakeen ondorioak. Berrito ere, etekina bilatzea iraunkortasuna bezalako bestelako irizpideen gaintetik kokatzen da, premisa gisa. Baina garrantzitsua da aintzat izatea bi logika horiek beti ez daudela kontrajarriak bizimodu ekologiko eta osasuntsuak izateko nahiaren altueran egongo den irudia eraiki nahi duten egungo hirien testuinguruan, gero eta zabaldua baitago nahi hori. Badira helburu politiko, ekonomiko edo sinboliko jakin batzuk lortzeko iraunkortasuna beste estandar bat bezala duten manipulatzeko eta erakartzeko prozesuak. Kasu horietan, geure buruari galdetu behar diogu ea

benetan onuragarriak diren hartzen diren neurriak, aplikatzen ari ote diren eta izaera holistikoa ote duten.

Zatikako neurrien, edo bestelako ondorio kaltegarriak<sup>22</sup> ekartzeagatik, zalantzan jar daitekeen onura duten neurrien aurrean, deshazkundearekin bat datozen proposamenek, neurriak aplikatzeaz gainera, hiri-garapenerako eredu gaineke ikuspegiaren eraldaketa sakona gertatzea nahi dute. Ikuspegi feminista batetik, derrigor galdetu behar diogu gure buruari hiri modernoaren eraikuntzan genero-joerak ote dauden. Adibidez, ea arkitekturak eta inguruan kokatzeko moduak pribatua/etxekoa den horren eta publikoa den horren banaketa erreproduzitzen duten. Aldi berean, galdetu beharra dago ea egun dugun ereduak zainketak esku pribatu femeninoetatik ateratzea ahalbidetzen duten zainketen kultura kolektiboagoi laguntzen dieten. Gure iritziz, sei faktore dira gakoa:

**1/ *Lantokiaren, ikastetxearen, osasun-etxearen, aisialdirako edo lasaitzeko guneen eta merkatuaren arteko gehiegizko distantziak*** zera eragiten dute:

- distantziak egiteko denbora gehiago inbertitu behar izatea, zainketen zama handituz;
- eguneroko bizitzako zereginak zaintzaileen artean partekatzeko ezintasuna, hiriko lekuetan bat ez datozenean (seme-alaben ikastetxea, adinekoen egoitza, osasun-etxea eta abar); eta
- eguneroko beharrak partekatzeko zailtasunaren aurrean, zainketa pribatizatzea eragiten duen sakabanatze handiagoa egotea.

**2/ *Hiriguneetan gune berderik ez egotea.*** Gero eta gune berde gutxiago egoteak lasaitzeko edo gozatzeko uneetan sozializatzeko zailtasunak eragitea baino ondorio gehiago dakartza. Haratago doa, bi zentzutan:

- Batetik, etxebizitzetatik urrun egoteagatik, eragotzi egiten da haurrek, adinekoek edo gaixo daudenek autonomia handiagoko sarbidea izatea gune berdeetara. Autonomiaren gabezia horrek zainketen

---

22 Fenomeno horren adibide pragmatiko bat dira Madrilgo M-30aren lanak: gune berdeak sortzeko helburuz errepidea lurperatzeko argudioa baliatuta, hiria zorpetu egin da eta kutsadura maila hamar bider igo da lanek beraiek eraginda; azkenik, sortu diren gune berdeak hasieran proposatutakoak baino gutxiago izan dira.

zama handitzen du. Barruan aisialdirako guneak dituzten eraikinak bezalako neurriak aurrerago aipatuko dugun *logika sekuritarioaren* baitan kokatzen dira eta, hori horrela, ez dira zainketa kolektibizatzekeo gailuak, baizik eta mehatxagarria den kanpoalde baten aurrean babestekoak.

- Bestalde, gune ireki eta berdeak egoteak bestelako giroa sortzen laguntzen du: inguru ekologikoagoak sortzen dituzte, kirola egitea edo jolastea ahalbidetzen dute; eta topaguneak dira, bertan zainketarako ekimen kolektiboak gertatzea, edo elkarri laguntzeko (gurasoen, bizilagunen eta lagunen artean, eta abar) sareak sortzea ahalbidetzen dutenak.

**3/ Gune publikoak pribatizatzea.** Aurreko puntuan adierazitakoaren antzera, gune publikorik ez egoteak, giro soziala aldatzen du, topaketa kolektiboa ekidinez eta, beraz, elkarri laguntzeko sareen edo lankidetzarako bestelako sareen sorrera eragotziz. Baina, gainera, hirietako gune publikoak pribatizatuz, aurretik aipatu dugun independentzia ideala indartzen du, besteekin topatze hori kontsumoaren bidez soilik gerta daitekeenaren ideia areagotuz.

**4/ Mugikortasuna.** Autoek bestelako garraiobideen gainean duen hegemoniak mugatu egiten du kalea, zainketekin lotutako bestelako eguneroko erabilerei dagokienez: batzuk aipatzearen, haurrekin eta orgatxoekin mugitzea eta erosketarako orgarekin ibiltzea bezalako zereginak zailtzen dira. Horretaz gainera, autoek eragiten duten arriskuak zaindutako pertsonen autonomia eza sakontzen du, bestelako baldintzak dituzten oinezkoek kalea okupatzeko aukerak eta bertan izan dezaketen fluxua mugatuz. Oro har, pertsonak gune publikoetatik ateratzen laguntzen du.

**5/ Elikadura subiranotasuna / ekonomia soziala.** Egun ez dago inolako murrizketarik hirietan kontsumitzen diren elikagaien jatorriari dagokienez. Merkatua lehiakortasunaren logikaren arabera antolatzen da, eta, horren arabera, helburua eskaintza zabala sortzea da —ez soilik produktuak saltzea, baizik eta edozer urteko edozein sasotan erosteko aukera izatearen sentsazioa sortzea (munduko beste herrialdeetako fruitu exotikoak, inportatutako barazkiak, urruneko itsasoetako arrainak, eta abar), horiek salneurri oso txikitik eskuratuz—. Dena den, tokiko ekonomiatan

eta munduko beste herrialdeetan, kontsumorako prozesuan bitartekariak parte hartzen dute, amaierako produktuaren prezioa garestituz, tokiko ekonomiak deprimituz eta amaierako prezioa esponentzialki handituz. Logika horrekin mozteko bi proposamen-lerro daude: etekina sortzea helburu zentralizat ez duten ekonomia sozial alternatiboak sortzen saiatzen direnak, eta ekoizleen, hornitzaileek eta kontsumitzaileen arteko haustura edo lankidetzak eskatzen dutenak; eta, ekonomia sozialaren edo hura gabe, elikadura subiranotasuna indartzea proposatzen dutenak, etekina bilatzeko eta egitura hierarkikoak (lurreko produktuak ustiatzeko artisau-enpresak) guztiz mozteko beharrik gabe. Azken aukera horretarako, beharrezkoa da edozer edonoz kontsumitzeko aukera dugunaren ideiarekin moztea. Posible al da Gipuzkoaren testuinguruan elikadura subiranotasun eredu bat pentsatzea? Eta justizia soziala, ekitatea eta beste hainbat balio txertatzea ahalbidetuko dute ekonomia sozialeko proiektuak (elikagaienak edo beste edozein gairekin lotutakoak) indartzea? Horretaz gainera, garrantzitsua da pentsatzea ea indartzeko modu horrek ez duen ekarriko itxiera identitario edo erreakzionarioa, ikuspegi transnazional batetik pentsatzea oztopatuko duena.

**6/ Kutsadura: indizeak, gai toxikoak eta uhinak.** Jarraian ikusiko dugun bezala, hainbat dira osasun orokorrarentzat eta, bereziki, emakumeentzat kaltegarriak izan daitezkeen faktoreak: kutsadura-tasa altuak, partikula toxiko jakin batzuk eta uhin elektromagnetikoak. Osasunaren alorrean gabeziak egoteak emakumean etxean ixtea dakar, etxetik kanpo lan egiteko aukera kentzen zaielako; horretaz gainera, emakumeak dira gaixoen gaineko erantzukizuna hartu ohi dutenak, eta, horrexegatik, bizitza osasungarria izateko baldintzak okertzen direnean, zainketen zama handitu egiten da.

Hirietan bizitza bere osotasunean pribatizatzeari laguntzen dioten, eta bestelako gizarte-antolamendu ereduak galarazten dituzten faktoreak daudela esan dezakegu. Beraz, ezinbestekoa da eztabaida zabaltzea, hauxe galdetzeko: zer nolako hiri-ereduek sor ditzakete kontsumoarekiko, merkatuan egiten den lanarekiko edo denborarekiko hainbesterainoko mendekotasunik ez duten kulturak? Hau da, zein hiri motek ahalbidetzen dute Biziera Onaren autogestio handiagoa?

### **3.5. Hiri globaletako bizimoduak: kontsumoa, lana eta logika sekuritarioa**

Esan dugun bezala, kolokan dagoena defendatu nahi dugun bizitzaren edukia da, bizi daitekeen bizitza posible izan dadin behar diren baldintzak. Horretarako, gehiago sakondu behar dugu ondasun komunak defendatu behar direla dion ideian (beharrezkoa den ideia horretan): ezbaian jarri behar ditugu egungo bizitzaren oinarri diren premisak. Jarraian, egun soziala den hori arautzen duten hiru oinarrizko premisatan jarriko dugu arreta.

#### ***1/ Kontsumoa eta gizarte-lankidetzaren berri pentsatzea***

Azken hamarkadatan salatu egin da munduko Iparraldeko herrietako kontsumo-maila neurrigabea izan dela, munduko beste herrialdeetakoekin alderatuz gero. Ezkerreko diskurtsoak soiltasunaren ildotik joan dira, bizitza eredu apala proposatuz, irudizko muga bat, arrazoizkoa eta gehiegizkoa ez dena berekin dakarrena<sup>23</sup>. Hala ere, diskurtso horiek, soiltasun-irizpideak ez zehazteaz gainera, "kontsumoari ez" leloan soilik oinarritzen direnek, ez dute nahiaren gordiar korapiloa ukitu ere egiten. Erretorika hori ez da nahikoa, bi arrazoi direla medio.

- Lehenik eta behin, ezin dugu nahia bera mugatu eta, beraz, ezin dugu mugatu guztiz beharrezkoak ez diren gauzez gozatzeko nahia mugatu. Are gehiago, beharrezkoa zer den galdetzen badugu, askotako erantzunak egongo dira.
- Ezin badugu ukatu nahi izate hori, agian arazoa ezin da debekua eragingo duten koordenatuetatik jorratu, baizik eta horiek desbideratzeko aukeratik.

Puntu horretan, gizarte lankidetzaren (gizabanakoak lanean lotzen dituzten jardueren multzo gisa ulertuta), komunikazioa, kultura, sarea edo kontsumoak bera, bestelako nahiak sortzera bideratutako jardueren multzo gisa pentsa ditzakegu. Adibide bat ematearren: ekoizleek, hornitzaileek eta kontsumitzaileek lankidetzan jarduten duteneko autokontsumorako tal-

---

23 Paradoxikoa bada ere, premisa horrek talka egiten du lanaren bidezko hazkunde ekonomikoa jarritako enfasiarekin. Zentzu horretan, ezkerrek ez du hausten ekoizpena/ugalketa/kontsumoa zirkuitua.

deetan, eztabaida ez da merkatuan eta zein kopurutan kontsumitzen den, baizik eta nola sortzea beste modu batean kontsumitzeko aukera.

Ikuspegi feminista batetik, eztabaida hori erabakigarria da: emakumeak kontsumitzaile handiak dira, bi zentzutan. Batetik, eguneroko bizitza eusteko arduradun nagusiak diren heinean, lehen mailako beharrekoak diren produktuak kontsumitu behar dituzte, eta horiei merkatuan dauden eta haiek edo haren ardurapean daudenek eskatzen dituzten produktuen amalgama gehitu behar diegu (hemen, berriro ere, eztabaida beharraren inguruko gizarte-erakuntza da). Bestalde, modaren, estetikaren, kosmetikaren, eta abarren merkatuan kontsumitzaile oso garrantzitsuak ere badira. Alderdi horri dagokionez, gutxi jorratu da feminismitik nahien, gorputzaren eta kontsumoaren arteko tolerantziarekin lotutako gaia. dena den, egun areagotu egin den eusteko moduetako bat da. Izan ere, emakume gazteen balioespen beharrak, gorputzarekiko harremana lor ezin daitezkeen eredu bitartez edukitzeak eta bazterkeria ekiditeko irudia mantentzeko presio sistematikoak (gizarte-taldeena eta bestearen, maskulinoaren, begiradarena) sasoika markatutako kontsumo-maila izugarri handiak eta bulimia edo anorexia bezalako gaixotasunak sortzen dituzte.

Laburbilduz, kontsumoari buruz, ikuspegi feminista izango duen eztabaida egiteko, ezin da hura ukatu. Alderantziz, aipatzen diren hiru galdera hauei erantzuten saiatu behar da:

- Beharraren eraikuntza soziala: Zein gauza iruditzen zaizkigu beharrezkoak? Zergatik?
- Nahia desbideratzea ahalbidetu dezaketen zein lankidetzako modu proposa daitezke?
- Nola eraiki dezakegu bestelako harremana gorputzarekin?

## ***2/ Soldatapeko lanaren inguruko bizitza***

Bizitzaren iraunkortasunaz hitz egiten denean, ezkutuan dagoen beste ardatzetako bat soldatapeko lanarena da. Funtsezko galderatako bat da merkatuetan egiten diren lanei zuzendutako bizitza eutsi nahi ote dugun. Hau da, kontsumitzeko baliabideak emango dizkigun soldata baten trukean lana bizitzaren mende egote hori ukitu gabe utzi nahi dugu, edo gizarte-harremanak aldatu nahi ditugu?

Pentsamolde postmarxista italiarrean oinarrituta, azken hamarkadatan (laurogeita hamarreko hamarkadan, batez ere) soldatapeko lana ezabatu beharko ote litzatekeenaren inguruko eztabaida interesgarria piztu zen. Lana eta enplegua bereiztea baliagarria izan da zentzu horretan: lehenengo ezin da bigarreneira mugatu, Ekonomia eta Lan Politikaren dokumentuan nabarmentzen dugun bezala. Ikuspegi horretatik, enplegua xantaia-iturria da, eta biztanleria soldataren eta langabeziaren bitartez eutsita edukitzea helburu bakartzat duena. Premisatako bat da aberastasuna kapitalak balioesten dituen hainbat eratarata sortzen dela eta, aldiz, ez direla ordaintzen, hala nola komunikazioa, gizarte-sareetan egiten den lana, kulturaren esparrua, jakintzak sortzea eta, noski, zainketak. Analisi horren ondorioa da beharrezkoa dela biztanleentzako oinarritzako errenta unibertsala bermatzea, batetik, sortzen den lanari balioa itzultzeko (zentzu horretan, ez da estatuak biztanleei egiten dien kontribuzio-mesedea, baizik eta bidezkoa den aitortza bat) eta, bestetik, bizirauteko dirua eskatzearekin batera, diru hori lortzeko enplegua kentzearekin mehatxu egiten duen gizarteak sortutako xantaia amaitu behar dela. Horren ildotik, bi mila urte hasieran, «doako dirua»ren inguruko kanpainak abiarazi ziren, diruaren eta enpleguaren azpian datzan logika horretan gordeta dagoen paradoxa hori adierazten asmoz.

Proposamen horrek baditu zenbait alde txar, subjektibitatea ezbaian jarri gabe irteera indibidualizatzea, esaterako. Adibidez, dirua merkatuan kontsumitzen jarraitzeko nahi al dugu? Zer ez dugu egin nahi zaintza-lanak ordaindu ahal izateko? Inolako kontrolik proposatzen al da? Bestalde, aberastasuna sortzen duten lanei dagokienez, denak berdinak al dira?: berdinak al dira zaintza-lanak eta gizarte-sareetan egiten den lana; lan sexuala eta lan komunikatiboa? Bestelako sozialitate modurik eraiki gabe, ez dago argi oinarritzako errentak inolako eraldaketarik bermatuko ote lukeen. Horretaz gainera, zainketen kasuan, ezegonkortasunaren eta aitortza ezaren baitan mamitzen den paradigmaren ondorioz, bereziki egokia da galdera hau: erronka horiek ordain daitezen lortzea al da? Edo, adierazi dugun bezala, genero-, sexu- eta maitasun-harremanak ezbaian jarri behar ditugu, bestelako zaintza-kulturak eraiki ahal izateko?

Baina hori ez da eragozpen bat soldatapeko lanaren zentraltasuna baztertzeko ideia probokatzailleak zabalduetako galderak aintzat hartzeko

orduan. Lehenik eta behin, gizarteak behar dituen lanak eta alferrikakoak direnak zein diren pentsatzera behartzen gaitu. Beharrezkoak diren lanak kolektiboki estali beharko lirateke; eta, bigarrenak? Bigarrenik, lana bizitzaren ardatz gisa ez duen, eta horretaz, gainerako elementuak definitzeko, lana ardatz gisa ez duen gizartearen antolamenduan pentsatzera behartzen gaitu. Zein ardatz berri edo erreferentzia puntu anitzen inguruan imajina dezakegu gizartearen antolamendua/bizi daitekeen bizitza?

### **3/ Logika sekuritarioa**

Egungo bizitza gobernatzeko duten beste ardatzetako bat, logika *sekuritarioa* da. Logika horrek teknologia berriekin lotutako segurtasun eta kontrolerako neurri intentsiboak garatzea dakar berarekin; babesean, gizarte-polarizazioetan eta prebentzio-gerratan deritzotenetan oinarritutako harremanak ere dakartza berarekin, gizartean mehatxu bat dagoenaren ideia baliatuz. Logika *sekuritarioa* beldurrean oinarritzen da. Pentsamolde horiek gero eta handiagoa den bizitzaren ezegonkortasun eta pribatizazioaren testuinguruan uztartzen dira. Bizitza sozial eta publikoaren desegite horretan –ongizate estatuaren desegite hori– uztartzen dira, eta banako erantzunak sustatzen dituzte.

Horren ildotik, geure buruari galdetu behar diogu eta bizitzaren eredu defentsiboa nahi dugun (banako aterabideei lehentasuna emango diona, pertsonen arteko mugak sortuko dituen), edo gizarte-loturak berriz asmatzeko baliagarria izango den eredu nahi dugun. Loturak indartzearen eta berreraikitzearen aldeko hautua egitea, edo besteak etengabeko mehatxu bihurtzen dituzten, eta gizabanakoak isolatzen dituzten eta elkarren artean lehiatzen jartzen dituzten banako txokoak sortzearen aldeko hautua egin behar dugu. Azken kasu horretan, logika *sekuritarioa* eguneroko bizitzan sartuko litzateke, gaur egun gertatzen den bezalaxe.

Ikuspegi feminista batetik, besteekiko loturen ereduaren inguruan berriz hausnartzeko esperientzia oso garrantzitsuak daude, baita gerrak edo pobrezia egoerek eta laneko gairak eragindako testuinguru oso polarizatueta ere. Puntu horretan, bada bidezkoa den beste eztabaida bat: gizartean dagoen beldurraren jatorria besteengan dago, edo biztanleriaren zati baten baliabide faltak, egiturazko desberdintasunek, baliabideetara modu iraunkorrean heltzeko ezintasunagatik, eta abarregatik andeatutako



egoera da? Biztanleriaren artean hainbestearainoko segurtasunik eza zerk eragin duen galdetu behar dugu.

Bestalde, munduko beste lekuetan bestelako mugimendu feministek, indigenek, adibidez, bizitza komunitarioak besteekiko eta ingurunearekiko harremanerako duen garrantzia azpimarratzea ahalbidetzen badigute ere, garrantzitsua da sarritan kontrol gehiago ekar dezaketen prozesu kolektiboak idealizatzeko tentalditik ihes egitea. Ezin ditugu galdera hauek ahaztu: Bizitza kolektiboa, noraino? Hasteko, eztabaida itxitzat ez ematea, idealizazio berrietan ez jausteko. Azken galdera da ea posible den bizi daitekeen bizitza izateko beharrezkoak diren baldintzen inguruan pentsatzea, egungo gizartearen bihotzean kokatuta dagoen beldurrean oinarritutako logikasekurtariohori zalantzan jarri gabe.



## 4. ZER DA BIZI DAITEKEEN BIZITZA?

### Gure buruari haren *kudeaketaren* ikuspegitik galdetuz

**H**asieran esan dugu bizi daitekeen bizitzaren inguruko eztabaidan bizitzaren kudeaketa eta edukia bereizi behar direla: lehenak "nola" galdetzen duen galderarekin du zerikusia; bigarrenak "zergatiarekin". Aipatu dugu ere edukiarekin lotutako galderak bi isurialde edo ikuspegi dituela: formala, aipatu den unibertsaltasun/singulartasun irizpidearekin; eta edukiaren beraren ikuspegia, deskribatuta aletzen diren hainbat alderdi barne hartzen dituena. Beraz, kudeaketa arazoaren berri eman behar dugu. Zein egituraren esku-hartzea egon behar da? Noraino?

Lehenik eta behin, bi jarduera eremutan bana daitezkeen estatuaren egitura klasikoak ditugu: herri politikak eta erakundeak. Horren ildotik egin beharreko galdera da eta alderdi horietatik konpon daitezkeen bizitzaren alderdi guztiak. Are gehiago: Hori nahi al dugu? Zainketen kasuak adibide paradigmaticoa eskaintzen du: beharrezkoak diren zainketak daude (aipatu dugu *beharrezkoa* den horren edukia zehazteke dagoela), Estatuak bere gain hartu beharko lituzkeenak (Mendekotasun legea zentzu horretan balio handia duen ekimena da); hala ere, ikuspegi zabalago bat erabiltzen badugu, biziera onaren inguruan galdetzeko egiten dugun bezala, bestelako ekimenak berekin dakartzaten zainketaren alderdiak topa ditzakegu (adibidez, zainketaren kultura kolektiboagoak sortuz, sozializatzeko ereduak berriz pentsatuz, genero- eta sexu-harreman inplizituak ezbaian jarriz, hiri iraunkorragoagoak eginez, eta abar.). Hona hemen oinarritzkoa den eztabaida bat: Politika herri politikak diseinatzeraz mugatzen da edo horiek bestelako prozesu sozialak barne hartzen dituen politikaren zati bat baino ez dira? Estatu herri politikak egitera mugatu behar al da, edo zeregin zabalagoa izan behar du? Komuna den horren kudeaketa egitura klasikoetara alboratu behar al dugu? Kudeaketa osoa ez bada, zein zati alboratu behar

dira eta zeintzuk ez? Estatuak bete gabeko guneak utzi behar al ditu bestelako ekimenak sor daitezen, edo Estatuak bultzatu behar ditu bestelako ekimen horiek? Aipatutako ordezkartzaren krisialdiaren testuinguruan, beste hainbat galdera ere egin behar dira: Egiturak beste irizpideen arabera berriz pentsatu behar al dira? Zeintzuk dira irizpide horiek? Erakundeak beste era batera egin al daitezke? Galdera horietako batzuk II. Planaren Gobernu Onaren ardatzean jorratutako gaiarekin gurutzatzen dira.

Bestalde, etxeak daude. Horien funtsezko zeregina zainketak hornitzea da. Eguneroko bizitzaren kudeaketarako engranaje nagusia da. Baina beharrezkoa da zeregin horren baitan sartzen denaren inguruan eztabaidatzea. Ikusi dugu giltzarrietako bat dela etxeek, eta emakumeek, zainketen ardura hartzeko duten modua, erantzukizuna feminizatze joera baitago. Zainketak etxeetatik atera behar direla beharrezkotzat jotzen badugu, geure buruari galdetu behar diogu ea zer esan nahi duen horrek, zainketen kudeaketaren *ikuspegitik; eta* edukiaren ikuspegitik. Lehenengoarekin lotuta, eztabaidatu behar diren hainbat erantzun kritiko daude (zainketen ardatzaren dokumentuan zehaztasun handiagoz jorratzen ditugunak):

- 1/ Etxeetan zainketak egiteari uztea, zainketen balioespenean eragin sinbolikoa izateko modu gisa. Dena den, zainketen nolakotasunik adierazgarriena etenak sortzerik ez dagoela da (zainketen mende dagoelako beste pertsonen ongizatea), eta horrek benetan duen eragin mugatua dakar. Horretaz gainera, premisa hori gelditu egiten da, etxeek (eta bertan dauden emakumeek) zaindu behar ez badute, zainketen ardura norena izango ote den galdetzen denean.
- 2/ Zainketen bidezko banaketa, gizon eta emakumeen artean. Hemen egin beharreko galdera da ea zainketa lan guztia etxeetan konpontzen jarraitu behar den, Estatuaren zeregina ezbaian jarri gabe eta estatuarenak ez diren *bestelako* zaintza-ekimenak itxiz. Horretaz gainera, funtsezkoa da galdetzea ea gizonek hartu behar duten emakumeen rola edo bi rolak guztiz zalantzan jarri behar ote ditugun (identitate maskulinoa eta femeninoaren eraikuntza ezbaian jartzeko behararekin lotuta, eta horien esparru den erregimen heterosexuala ezbaian jartzeko behararekin lotuta).
- 3/ Zainketak merkanilizatzea. Erantzuna bakarra (estatuaren estaldurarik ez *egotea*) edo mistoa izan daiteke (Estatuaren zatiko parte-hartzearekin konbinatzea).

- 4/ Zainketen merkantilizazioa hein batean ukatzea. Kasu honetan, Estatuak *zainketen* estaldura osoa egin beharko luke (hau da, gizarteak beharrezkotzat jotzen dituen eta eztabaidatu behar direla adierazi dugun zainketa horiek) eta, beti ere, merkatuan luxuzko zainketak erosteko aukera legoke. Aintzat izan behar da eredu hori bereizgarria litzatekeela luxuzko zainketak ordaintzeko gaitasuna dutenen eta ez dutenen artean (horrek haientzat denbora gehiago izatea esan nahi du);
- 5/ Merkantilizazioa erabat ukatzea. Kasu horretan, zainketak Estatuak eta *estatuarenak* ez diren maila publikoan sortutako bestelako gizarte-ekimenek estali beharko lituzkete.
- 6/ Zainketak gizartean berriz antolatzea. Kasu honetan, egungo zainketen erregimena ezbaian jartzen da, Estatuak, etxeek eta merkatuek zainketen *horniketan* esku har dezaten (paper hori zein izan beharko litzatekeen balioetsiz: adibidez, zerbitzuak saldu beharrean, zainketak estaltzeko zerga erantsia proposatzerik legoke), eta zainketak sozializatzeko eta zainketaren bestelako kulturak sortzea ahalbidetuko duten prozesuak zabal daitezten.
- 7/ Azkenik, galdetu behar dugu, zein zeregin zehatz atera nahi ditugu etxeetatik? Galdera honek zera pentsatzera behartzen gaitu:
  - Estatuak edo merkatuek ezin dutela dena bere gain hartu.
  - Ez da desiragarria dena etxeetatik ateratzea. Egoitzetan zainduak izateko etxeetatik atera nahi ez duten *agureen* kasua; edo haurreskoletara eramanez, seme-alabekin etxean egon nahi duten kasua.

Beraz, eztabaidak ez du zerikusia soilik etxeek bizitzari, bere osotasunean, eusteko duten funtsezko zeregina ikusgai jartzearekin, baizik eta galdera honi erantzutearekin: zainketak etxetik ateratzea ba, baina, nola? Zehazki: Proposatutako zein aukerara bideratu behar gara?

Bizitza komunaren kudeaketan parte hartzen duten egiturekin lotuta aipatu beharreko azken puntua, bere horretan, horien egokitasunarekin lotutako eztabaidarena da. Zenbait jarreraren arabera, egitura klasikoak soilik baliatu behar ditugu. Baina eguneroko bizitzaren kudeaketan ez dute soilik egitura klasiko horiek parte hartzen, eta ez dugu zertan nahi izan estatuarenak ez diren bizitza publikoko beste mailak baliogabetzea. Eztabaida da ea komuna den hori estatuarena ez den maila batetik kudeatzea nahi dugun,

gizarte-autonomia indartuz, edo maila horrek ez duen paper garrantzitsu bat bete behar, hura ahulduz eta mendeko bihurtuz. Lehen proposamenaren aldeko apustua egiten badugu, edo erakunde berriak<sup>24</sup> indartu edo bertutuko ditugu, dagoeneko existitzen diren proiektuen ildotik joango direla: autogestionatutako gizarte-guneak, hainbat esparrutan lankidetzako egiteko ekimenak (kontsumoa, lana, denbora), ekonomia sozialeko proiektuak (justizia soziala, demokrazia eta horizontaltasuna erdigunean jarritz), elkarri laguntzeko eta zaintzarako sareak. Horretaz gainera, bestelako erakunde berriak sortzeko bide emango luke<sup>25</sup>. Estatuarena ez den maila publiko sortzea lotuta dago aipatu den egungo ordezkari-tza-krisialdi egoerarekin: egitura klasikoek zilegitasuna galdu ahala indartzen da. Ikuspegi feminista batetik, jardunbide anitzak egotea funtsezkoa da, emakumeak ez direlako soilik gizarte-ekimenen, lankide proiektuen eta ekintzailatza proiektuen protagonistak, baizik eta eguneroko bizitzaren sostengua ere konpontzen dutela, hainbat sareren bitartez, hori krisialdi egoeran areagotzen dela. Hori dela eta, beharrezkoa da komuna den horren kudeaketak sortzen dituen dilematako batzuei aurre egitea, estatuarena ez den maila publiko batetik:

- Sortzen diren ekimenez, zein neurritan izan behar dute autonomia? Autonomia erabatekoa da edo nolabaiteko harremana dute egitura klasikoekin?
- Harremana mantentzen badute, nola lortzen dute autonomia mantentzea? Horri dagokionez, beharrezkoa da adieraztea egiturekiko harremana ekiditen duten egiturek isolatuta geratzeko arriskua dutela; bestalde, gehiegizko mendekotasunak teknokratizazioa ekarriko luke.

Zein neurritan gaintitzen da jardunbide horien unibertsoa inguratzen duen muga? Eta zein neurritan eragiten da boterea metatua duten guneetan?

---

24 Hainbat egilek 2008an argitaratutako liburuak, "Producción cultural y prácticas instituyentes. Líneas de ruptura en la crítica institucional". Traficantes de Sueños, Madrid; saiatzen da sormena ohiz kanpoko den egintza ez dela azpimarratzen; horren ordezkari gortuz soziala zeharkatzen duela eta, horrela, ohiko erakundearen hegemonia baztertzeko erakunde berriak sortzen dituela.

25 Ildo horretan egindako ekimen interesgarria da Fundación de los Comunesek duela gutxi sortutakoa (ikus: [https://n-1.cc/mod/file/download.php?file\\_guid=928830](https://n-1.cc/mod/file/download.php?file_guid=928830))

## 5. II. BERDINTASUN PLANERAKO IRADOKITZEN DITUGUN ESKU-HARTZERAKO ESTRATEGIAK

---

### 5.1. Hirigintza / deshazkundera:

- Hirigintzari mugak jartzea: hirigintza-irizpide gisa hartzea dagoeneko existitzen diren eta erabiltzen ez diren, edo abandonatuta dauden gune eta eraikinen leheneratzea, berriak sortu aurretik. Dagoeneko existitzen diren baliabideak baliatzeaz gainera, hiri txikiagoek giza-harremanen kalitatea handitzea ahalbidetzen dute. Lantokiaren, ikastetxearen, merkatuaren, osasun-etxearen edo etxebizitzaren arteko gertutasunak, bereziki emakumeek egiten dituzten eguneroko zereginetarako erabiltzen den denbora murriztea dakar.
- Gune berde edota komunitarioak hedatzea: sozializatzeko eta bizitza kolektiboa egiteko lekuek etxetik kanpo bestelako zaintza-harremanak sustatzea ahalbidetzen dute.
- Autoaz bestelako garraiobideak sustatzea: neurririk gabe hazi ezin daitezkeen hiriei buruz ari garela aintzat hartzen badugu, benetan gerta daiteke gehiengoak autoa ez diren garraiobideak (bizikleta, garraio publikoa) erabiltzea. Horrek hirietan buxadura kentzeaz gainera, kutsadura-mailak hobetzen laguntzen du.
- Herri bakoitzean dauden arrisku-faktoreak aintzat hartuz, kutsadura-mailak mugatzea (bereziki kutsagarriak diren industriak, telefonia mugikorreko antenek edo bestelako sistemak –wifia edo haririk gabeko telefonia– sortzen duten erradiazio elektromagnetikoak, ibilgailu kutsagailuen gehiegizko erabilera, hondakin toxikoak edota uretan dauden hondakinak, laboreetan pestizida gehiegi erabiltzea, eta abar). Argudiatu dugun bezala, neurri horiek emakumeen (haiek baitira lehenak gai kutsatzaile horien kalteak jasaten) eta beste pertsonen osasuna

hobetzeko lagungarriak izan daitezke; beste pertsonen osasunak ere emakumeen gainean eragina duela aintzat izan behar dugu ere, mendetasun egoeran dauden pertsonen zaintzaile nagusiak baitira.

- Elikadura Subiranotasuna: eskualdeetako labore eta merkatu ekologikoak sustatzea. Ingurumena errespetatzen duten ekonomia iraunkorrak sortzean datza eta, aldi berean, aurretik esandakoaren ildotik, kutsatuta ez dauden produktuak sustatzean datza, osasunaren prebentzioan lagun dezaten, hori bizitzaren iraunkortasunaren funtsezko alderdietako bat bezala aintzatetsiz.

## **5.2. Bizimoduak: bizi daiteken bizitza garatu ahal izateko beharrezkoa edo desiragarria dela aintzatesten dugunaren inguruko sinesmen subjektiboak ezbaian jarri behar ditugu.**

- Kontsumo-eredua: jatorria kontsumoan ez duten bestelako ondasunak balioesteko kanpainak (adibidez, autoa edo etxea ordaintzeko zorpetzearen aurrean, sozialtasunerako denbora askatzea).
- Truke-azokak, zaintzarako denbora-bankuak edo hainbat baliabide (egonaldiak, jakintza, eskolak, ikastaroak, eta abar) eta gauza (jantziak, liburuak, tresnak, altzariak, eta abar) aldatzeko bankuak bezalako ekimenak.
- Gizarte-lankidetzaren balioestea, ez errentagarritasunetik, baizik eta horrek sor dezakeen ongizateetik: lehiakortasun soziala edo indibidualismoa desaktibatzeke helburua duten kanpainak.
- Gorputzen zaurgarritasuna onartzea, ez merkatuan konpondu behar den ahultasun bat bezala (ebakuntzak eginez, botikak hartuz, betirako gazte izanda, eta abar), baizik eta harremanak eta sare sozialak sortzeko duen potentzia berreskuratuz (adibidez: zahartzaroa ez da bizitzaren amaiera, besteak bezain baliotsua den une bat baizik; gizarteak bere gaixoen ardura hartu behar du; edo lanetan, ikastegietan eta herri-erakundeetan aniztasuna benetan aitortu behar da; hauskortasuna edo gaixotasuna ez ulertzea gastu publiko bezala —sobratzen den hori bezala—, baizik eta haren zati bezala).
- Ongizatea, ez norberaren esperientzia hutsa bezala, esperientzia kolektibo bezala baizik:



- estatuarena ez den maila publikoan sortzen diren gizarte-antolamendu modu berriak babestea (zainketarako sare informalak, emakumeen parte-hartze soziala babesten duten talde edo elkarteak, elkarri laguntzeko moduak sortzen dituzten gizarte-gune autogestionatuak).
- Euskadin auzolana berreskuratzeko prozesuei laguntzea, emakumeen parte-hartzeari eta sozializatzen diren lan motei arreta berezia eskainiz.
- Bizitzaren eta produktibismoaren arteko identifikazioa haustea, zer gertatzen da zahartzen garelako, gaixotzen garelako edo besteak zaindu behar ditugulako produktiboak ez garenean?: "egoitza" ereduaz haratago doan adinekoentzako gune partekatuen antolamendua erraztea; hirietan eta erakundeen guneetan irisgarritasuna, garraio-bideak, aisialdirako lekuak ezartzea; gaixo kronikoen, adinekoen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen Interneterako sarbidea sustatzea. Bazterkeria arrisku handiena duen biztanleei eta gaixo kronikoei pentsio duinak bermatzea. Neurri horiek eragin zuzena dute zaintzaile informalei lana arintzeko orduan.
- Bizikidetza ereduak: familia nuklear heterosexualaz haratago doazen bizikidetza modu anitzak sustatzea, adibidez, alokairu sozialak edo bestelako laguntzak (familia homosexualak, lesbiarrak eta transak, lagun taldeak edota familiak, amak haien seme-alabak, eta abar).
- Lanari eskaintzen zaion denbora askatzea. Lanaldia murriztera zuzendutako ekimenak.
- Gizartean beharrezkoak diren lanak zein diren jakitea.
- Oinarrizko errenta unibertsalizatua.

### **5.3. Osasuna, emakumeak eta ingurumena: Bizitza iraunkorrean pentsatzen badugu, biztanleria osasuntsua izateko beharrezkoak diren baldintzak sortu behar ditugu:**

- **Prebentzioa:**
  - Gai kutsagarriak zaintzeko eta kontrolatzeko beharra aipatu dugu. Emakumeak dira kaltetu nagusiak, gai kutsagarri horietako askok

- disruptore endokrino bezala jarduten dutelako, metabolismoan eta hormona-sisteman desestabilizazioak sortuz.
- Kutsadura elektromagnetikoa mugatzea: ikastetxe publikoetan<sup>26</sup>, osasun-etxeetan, liburutegietan, zinema aretoetan, eta abarretan wifia mugatzea; hari bidezko sistema txertatuz eta wifi sistemak salbuespenak edo beharrezkoa denean erabiliz, inoiz ez besterik ezean.
  - Elikadura. Osasunean eragin kaltegarriak dituzten produktu kutsatuak daude (pestiziden erabilera, haragian dauden hormonak); baina, horretaz gainera, ezbaian jarri behar da elikadura industrialak, haren eragin kaltegarriak modu negatiboan baloratzen hasi dira eta (azukreen, gantz asean, irin zurien, eta abarren erabilera).
  - Anbulatorioetan sentiberatzeko tailerrak egitea, lehen mailako arretarako medikuei zuzendutako protokoloekin (jarraian aipatzen diren protokoloak lantzen ari diren mediku feministak daude: horiek Gipuzkoak aplikatzeko aukera).
  - *Desmedikalizazioa*, botikak justifikatuta ez dauden kasuetan (gai-xotasun egoera arintzeko bestelako arazoak eta tratamenduak bilatzeko protokoloak jarraituz).
  - *Transexualtasuna despatologizatzea eta sexua berriz emateko prozesua* Osasun Sistema Nazionalean *txertatzea*. Kalitatezko tratamendua bermatzeko, eta araubide gutxi duten, eta osasunean eragin negatiboa izan dezaketen tratamendu pribatuak baliatzeko beharra ezabatzeko modua da.
- **Diagnostikoa:** lehentasunezkoa da diagnostiko egokietarako sarbidea izatea. Mediku zientziak ez ditu erantzun guztiak, baina gaixotasun berrien tratamenduaren kasuan, arazoak ez du hainbeste lotura "datuak ez izatearekin", beste hiru funtsezko faktoreekin du lotura, ordea:
    - *Alor desberdinetako eta gaixotasun berrien tratamendu eta diagnostikoekin lotuta, bestelako esperientziak* (horietako asko arrakastatsuak izan direla) *dituzten medikuen arteko partekatze falta*.

---

26 Ikastetxe publikoetan uhin elektromagnetikoen eraginpean egoteak harremana du haurren hiperaktibotasunaren gorakadarekin.

- Mediku-prozesuaren baitan *gaixoari entzutea eta haren kontaktuzuna balioestea*. Valls-Llobet doktoreak *osasun arretan gertatzen diren mikroindarkeriak*<sup>27</sup> aipatzen ditu; horien faktore gakoa mediku izatearen botereaz baliatzea da, gaixoari zer gertatzen zaion eta zer ez zaion gertatzen esateko, sarritan, oldarkorra izan daitekeen tratua emanez eta gaixoaren esperientziari edo jakintzari inolako lekurik eman gabe.
- *Genero-joera kontsultatan*. Joera hori dela eta, ez da ikusten ez daudela beti arazo psikologikoen aurrean. Horrelako baieztapen bat egin aurretik, lehenik eta behin, egin beharreko frogak egin behar dira, hainbat gaixotasun posible baztertu ahal izateko. Jardunbide hori sortu ahal izateko, bi funtsezko tresna abiarazi behar dira:
  - 1/ *Medikuei alorreko prestakuntza ematea, esperientzia arrakastatsua izan duten medikuen eskutik, eta ezagutza zabala ematea, horretarako prestakuntza guneak eta ildo horretan egindako lanen hedapena baliatuz (adibidez, Xarxa de Dones per la Salut).*<sup>28</sup>
  - 2/ *Jarduteko protokoloak sortzea*. Valls-Llobet doktoreak<sup>29</sup> fibromialgiarekin nahas daitezkeen 16 gaixotasun daudela dio, giharreetako min orokorra eragiten dutelako eta gihar- eta tendoietako lotuneetan mina eragiten dutelako. Horietako batzuen prebalentzia, anemia eta burdin gabeziarena, edo miopatia hipotiroidea edo hipertiroidea gizon bakoitzeko 50 emakumekoa da. Fibromialgia deritzon gaixotasunaren hazkunde handiak (Madrilgo Erkidegoko Fibromialgia Elkartearen arabera, gaixotasun horrek biztanleriaren % 4ari eragiten dio ; % 85 emakumeak, % 15 gizonak) , benetan, diagnostikatu ez den gaixotasun horietako bat ezkukatzen ote duen da kontua. Gai hori funtsezkoa da, aintzat izan behar dugulako mediku-zientziarentzat fibromialgiak ez duela sendabiderik, eta beste gaixotasun

---

27 Valls- Llobet, Carme (2010), *Mujeres, salud y poder*, Cátedra, Valentzia, 359. or.

28 <http://www.xarxadedonesperlasalut.org/>

29 Berb. 187. or.

horientzako tratamendua badagoela; horietako batzuk, gainera, tratamendu erraza dute, terapia benetan merkeen bitartez egiten dena (adibidez, hiperparatiroidismoren ondoriozko d bitamina gabezia zuzentzearen kostua ez da hileko hamar eurotik igotzen –aldiz, gabezia hori luzatzen bada, oso egoera aurreratuan badago, sendatzen zaila den osteoporosia eragin dezake –, edo anemiak). Hau da, diagnostiko goiztiarra egin aurretik, aipatu gaixotasun horietako baten aurrean egon gaitzkeenaren aukera aintzat izan behar da.

Bi tresnak baliagarriak izan daitezke nekea eta mina duten pertsonen diagnostiko zuzena egiteko, urteetan zehar hainbat espezialistengana bidali edo botika gehiegi eman beharrean, horrek osasunarentzat dakartzan kalteak ekidinez.

#### 5.4. Sendatze prozesua

- Banako eta taldeko laguntza psikologikoa.
- Kaltetutako pertsonen arteko asoziazionismoa sustatzea.
- Laguntza eta baliabideak gaixotasun kronikoetan. Bestelako terapiak eskaintzea. Herri osasungintzan ohiko medikuntzaren osagarri gisa sartu behar al dira? Emakumeak lirarteke terapia horien lehenengo onuradunak, ohiko medikuntzak arintzen ez dituen gaixotasun kronikoak jasaten baitituzte. Batetik, terapia alternatibo horien estatusa bera eztabaidatzen da. Bestalde, terapia alternatiboak emaitza bikainak ematen ari dira ohiko medikuntzaren helmena ez duten gaixotasunen tratamenduan (bi adibide paradigmatico dira alergiak homeopatiarekin tratatzea, eta duela gutxi espainiar estatuko ospitaleetan<sup>30</sup> minbizia duten gaixoei Rekiarekin egindako tratamendua). Paradigma zientifiko klasikotik, nola funtzionatzen duten azaltzeko gai ez badira ere, egiaztatu egin da gaixoentzat onuragarria dela.
- Sartu behar badira: Zeintzuk sartu behar dira? Bi galdera horren inguruan:

---

30 12 de Octubre eta Ramón y Cajal Ospitaleak aitzindariak izan dira hori aplikatzen: <http://www.revistanatural.com/noticia.asp?id=716>

- terapia jakin batzuk baldin badira sartu behar direnak, zeintzuk lirateke horiek? Zein irizpiderekin hautatzen dira?
- haien beharrentzat egokienak diren terapiak gaixoek beraiek aukeratzeko badituzte, zein unetik aurrera aintzatesten da gaixoak terapia hori behar duela: prebentzio gisa, gaixotasun kronikoen prozesuetan, larrialdi egoeran? Eta, batez ere, nork zehazten du terapiaren beharra dagoela? Gaixoak, medikuek, jarduteko protokolo batek?

**5.5. Nortasun sexualaren eta genero-identitatearen eraikuntza:** gizarte osoa eredu sexual jakin batean oinarritzen da. Nola funtzionatzen du maskulinitatearen eta feminitatearen eraikuntzak geure gizartean? Bizitza iraunkorrean pentsatzen dugunean, ezin dugu alde batera utzi galdera hori.

- Derrigorrezko heterosexualtasuna. Aniztasun sexualaren berri ematen duten azterlanak, ikerlanak eta praktikak sustatzea, eta feminismoaren egiten diren, eta sexualtasunaren eta lanaren artean dauden loturak (erregimen heterosexuala eta lanaren banaketa sexuala) ikertzen dituzten analisien berri ematea.
- Generoaren eraikuntzaren, maskulinoa/femeninoa binomioaren eta horiei atxikitako rolen berri ematen duten azterlan, ikerlan eta praktikak sustatzea.
- Femeninoa den horren gizarte eraikuntza besteen zainketaekin lotura ulertzeko eta ezbaian jartzeko asmoa duten azterlanak, ikerlanak eta tailerrak bultzatzea. Eraikuntza hori sustatzen duten publizitate-kanpainak kontrolatzea (erakundeetatik edota enpresetatik egiten direnak).
- Maitasun erromantikoa. Maitasun- eta txera-harremanen oinarria, eta lotura sexualak ulertzen saiatzen diren ikerlanak sustatzea.
- Indarkeriak. Emakumeen eta bestelako subjektu ez normatiboen aurka egiten diren indarkerien inguruko eztabaida kokatzea, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik gertatzen denaz haratago gertatzen diren indarkeria anitzak aitortuz, eta erakundeetako indarkeriei buruzko eztabaida sortuz, toki erakundeek, Gipuzkoako Foru Aldundiak esaterako, gai horretan duten zereginari buruzko eztabaida ere sortuz.

- Berriz esan nahi dugu zerrenda horrek ez dituela agortzen edo ixten bizitzaren iraunkortasunaren ardatzean abiaraz litezkeen estrategia politikoak. Zerrendan agertzen direnak, bideari ekiteko baliagarriak izan daitezkeen proposamen batzuk baino ez dira.

## 6. BIBLIOGRAFIA

---

### 6.1. Biziera Ona Latinoameriketako mugimendu feministen ikuspegitik

Articulación Feminista Marcosur (2010), *Diálogos Complejos. Miradas de mujeres sobre el Buen Vivir. 1er encuentro entre líderes indígenas y líderes feministas*, Asunción del Paraguay: Articulación Feminista Marcosur. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.cotidianomujer.org.uy/fsa\\_indigenas/relatoria\\_indigenas2010.pdf](http://www.cotidianomujer.org.uy/fsa_indigenas/relatoria_indigenas2010.pdf)

Cabnal, Lorena (2010): *Acercamiento a la construcción del pensamiento epistémico de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala*. Feminismos diversos: el feminismo comunitario. Siempre Seriea. ACSUR Las Segovias. Hemen eskura daiteke: <http://dl.dropbox.com/u/55509849/Enlace%20hacia%20Feminismos%20diversos.pdf>

Celiberti, Lilian (2010): *Feminismos polifónicos, interculturales y dialógicos. El buen vivir desde la mirada de las mujeres*, Genero-ekitatearen politikak propektiban izeneko Nazioarteko Kongresuan egindako aurkezpena: agertoki, eragile eta egituraketa berriak, Buenos Aires: Generoa, gizartea eta politikak Saila - FLACSO - Argentina. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.prigepp.org/congreso/documentos/ponencias/5\\_Lilian\\_Celiberti.pdf](http://www.prigepp.org/congreso/documentos/ponencias/5_Lilian_Celiberti.pdf)

León T., Magdalena (2009), "Cambiar la economía para cambiar la vida", Acosta, Alberto eta Martínez, Esperanza (bil.), *El buen vivir: una vía para el desarrollo*, Abya-Yala arg.: Quito. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.fedaeps.org/IMG/pdf/CAMBIAR\\_LA\\_ECONOMIA\\_PARA\\_CAMBIAR\\_LA\\_VIDA.pdf](http://www.fedaeps.org/IMG/pdf/CAMBIAR_LA_ECONOMIA_PARA_CAMBIAR_LA_VIDA.pdf)

LEÓN, Magdalena (2008): "Después del 'desarrollo': el 'buen vivir' y las perspectivas feministas para otro modelo en América Latina", *Umbrales*. Revista del Postgrado Multidisciplinario en Ciencias del Desarrollo, 1. liburukia, 18. alea, La Paz: Universidad Mayor de San Andrés (UMSA), 35-44. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.scielo.org.bo/pdf/umbr/n18/v1n18a2.pdf>

## 6.2. Biziera ona (baina... ez mugimendu feministetatik)

Acosta, A. eta Martínez, E. (arg.) (2009) *El buen vivir: una vía para el desarrollo*, Abya Yala, Quito

Gudynas, Eduardo (2011): *Buen Vivir: Germinado alternativas al desarrollo*, América Latina en Movimiento 462. alea, Quito: ALAI. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.alainet.org/publica/alai462.pdf>

Medina, Javier (arg.) (2001), *Suma Qamaña La comprensión indígena de la Vida Buena*, Seriea: Gestión Pública Intercultural (GPI). 8. alea, GTZ. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://saludpublica.bvsp.org.bo/textocompleto/bvsp/boxp68/vida-buena.pdf>

*Obets. Revista de Ciencias Sociales*. 6. lib., 1. alea, 2011 (biziera onari buruzkoa). Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/18071/1/OBETS\\_06\\_01.pdf](http://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/18071/1/OBETS_06_01.pdf)

Sempere, Joaquín (et alii.) (2010): *Dossier: enfoques sobre el bienestar y buen vivir*, Madril: CIP-Ecosocial. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.fuhem.es/media/ecosocial/File/Dossieres/Dossier%20bienestar%20y%20buen%20vivir\\_jul10.pdf](http://www.fuhem.es/media/ecosocial/File/Dossieres/Dossier%20bienestar%20y%20buen%20vivir_jul10.pdf)

Tortosa, José María (2009), Sumak Kawsay, Suma Qamaña, Buen Vivir, Fundación Carolina. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke:

<http://www.fundacioncarolina.es/es-ES/nombrespropios/Documents/NPTortosa0908.pdf>

## 6.3. Bizitzaren iraunkortasuna eta sistemaren kritika feminista

Carrasco, Cristina (2011), "No es una crisis, es el sistema", *Con la a*. Aldizkari digitala. 1.alea. Atala: Análisis y pensamiento. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://numero1.conlaa.com/archivos/562>

Carrasco, Cristina (2009), "Mujeres, sostenibilidad y deuda social", *Revista de Educación*, Ale berezia, 169-191.

Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.revistaeducacion.mec.es/re2009/re2009\\_08.pdf](http://www.revistaeducacion.mec.es/re2009/re2009_08.pdf)

Espino, Alma eta Norma Sanchís (2005), *¿A qué modelo de desarrollo apostamos las feministas?*, Iniciativa Feminista de Cartagena - Red Internacional de Género y Comercio, Latinoamerikako atala. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.generoycomercio.org/areas/incidencia/espino\\_sanchis.doc](http://www.generoycomercio.org/areas/incidencia/espino_sanchis.doc)



- Federici, Silvia (2004), *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpos y acumulación originaria*. Traficantes de Sueños, Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.traficantes.net/index.php/editorial/catalogo/historia/Caliban-y-la-bruja.-Mujeres-cuerpo-y-acumulacion-originaria-2a-Edicion>
- Gil, Silvia L. (2011), *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión. Una historia de trayectorias y rupturas en el estado español*, Traficantes de sueños, 37. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://traficantes.net/index.php/content/download/28063/260518/file/mov\\_11\\_FINAL.pdf](http://traficantes.net/index.php/content/download/28063/260518/file/mov_11_FINAL.pdf)
- Pérez Orozco, Amaia (2012), *De vidas vivibles y producción imposible*, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.rebellion.org/noticia.php?id=144215>

#### **6.4. Ekofeminismoari eta Deshazkunderari buruz**

- Aguinaga, Margarita (2010), *Ecofeminismo: mujer y Pachamama, no solo es posible una crítica al capitalismo y al patriarcado*, ViVe/ALAI, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://alainet.org/active/39531>
- Bosch, Anna; Carrasco, Cristina; eta Grau, Elena (2005): "Verde que te quiero violeta, encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo" TELLO, Enric, *La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible*, Bartzelona: El viejo topo, 321-346. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke <http://www.ecologistasalcalah.org/docs/ecof02.pdf>
- Herrero, Yayo (2012), "Golpe de estado en la biosfera: los ecosistemas al servicio del capital", *Revista Investigaciones Feministas*, 2. lib., 215-238orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://revistas.ucm.es/index.php/INFE/article/view/38612>
- Pascual Rodríguez, Marta eta Yayo Herrero López (2010), "Ecofeminismo, una propuesta para repensar el presente y construir el futuro", *Boletín ECOS*, 10. lib.. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.mma.es/portal/secciones/formacion\\_educacion/reflexiones/pdf/2010\\_06pascualyherrero.pdf](http://www.mma.es/portal/secciones/formacion_educacion/reflexiones/pdf/2010_06pascualyherrero.pdf)
- Puleo, Alicia (2011): *Ecofeminismo para otro mundo posible*, Cátedra Argitaletxea, Madril
- Taibo, Carlos (2012) *Doce preguntas sobre decrecimiento*. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.decrecimiento.info/2010/09/12-preguntas-sobre-el-decrecimiento.html>
- Weingärtner, Julia eta Monasterio Martín, Marta (2010), *Poner la vida en el centro: respuestas del ecofeminismo y del decrecimiento a la UE*. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.ecologistasenaccion.org/article16371.html>

## 6.5. Ekonomia Solidarioa

Burns, Alison Teresa (2007): *Politizando la pobreza. Hacia una economía solidaria del cuidado*, San Salvador: Progressio. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.bantaba.ehu.es/ext/Politizando\\_la\\_pobreza-1.pdf](http://www.bantaba.ehu.es/ext/Politizando_la_pobreza-1.pdf)

Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes (2011) Papeles de Economía Solidaria 2. alea Hegoa, REAS, RILESS, Emaus Gizarte Fundazioa

Quiroga, Natalia (2008) "Economías feminista, social y solidaria. Respuestas heterodoxas a la crisis de reproducción en América Latina", *Iconos. Revista de Ciencias Sociales*, 33, FLACSO Ecuador.

Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.flacsoandes.org/dspace/bitstream/10469/304/1/07.%20Dossier.%20Econom%C3%ADas%20feminista%2c%20social%20y%20solidaria%E2%80%A6%20Natalia%20Quiroga%20D%C3%ADaz.pdf>

## 6.6. Osasuna

Jara, Miguel (2009), *La salud que viene. Nuevas enfermedades y el marketing del miedo*, Península, Madril.

*Boston Women's Health Book Collective (2000), Nuestros Cuerpos, Nuestras Vidas*. Seven Stories Press, Boston.

Valls-Llobet, Carme (2005), *Mujeres invisibles*, Debolsillo, Bartzelona

Valls-Llobet, Carme (2009), *Mujeres, salud y poder*, Cátedra, Valentzia.

Valverde, Clara (2009) *Pues si tienes buena cara. Fatiga crónica, una enfermedad políticamente incorrecta*. Martínez Roca, Bartzelona.

Margarita López Carrillori egindako elkarrizketa: "Por qué son importantes las redes de mujeres en el ámbito de la salud". Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://revista.conlaa.com/index.php/administracion/41-transversales-3/65-entrevista-a-margarita-lopez-carrillo>

## 6.7. Maskulinitatearen, feminitatearen eta sexualtasunaren eraikuntza

Butler, Judith, (2000) "El Marxismo y lo meramente cultural" 94, *New Left Review*-ren 2. alean, maiatza-ekaina

Esteban, Mari Luz (2011), *Crítica del pensamiento amoroso*, Edicions Bellaterra, Bartzelona.

Esteban, Mari Luz (2009), "Cuerpos y políticas feministas", Granada, treinta años antes después: aquí y ahora-n. Estatuko Jardunaldi Feministak. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke <http://www.feministas.org/spip.php?article300>

Izquierdo, Maria Jesús (1998), *El malestar en la desigualdad*, Cátedra, Madril.

Izquierdo, Maria Jesús (2003), «Del sexismo y la mercantilización del cuidado a su socialización: Hacia una política democrática del cuidado», *Cuidar cuesta: costes y beneficios del cuidado*, Donostia: Emakunde, 2003ko Urriaren 12 eta 13. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin\\_ECOS/10/Socializacion\\_del\\_cuidado.pdf](http://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin_ECOS/10/Socializacion_del_cuidado.pdf)

STP 2012 Kanpainaren Adierazpena, 2011ko uztaila. «Reflexiones sobre despatologización trans y derechos sanitarios». Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.stp2012.info/>

Mendoza, Indyra (2010) "Orientación Sexual e Identidad de Género en Época de Crisis Política".

Red Lésbica Cattrachas. Honduras. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [http://www.google.com/url?sa=t&trct=j&eq=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CCgQFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.runa.org.pe%2Fruna%2Fgenerando%2Farticulos%2FArt25\\_OrientSex\\_e\\_IdentGen\\_Honduras.pdf&ei=1oiRT5qTHYm90QWG5PXyAQ&usg=AFQjCNFIJT3snxv-R2uqjH5h7gu25XP6LQ](http://www.google.com/url?sa=t&trct=j&eq=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CCgQFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.runa.org.pe%2Fruna%2Fgenerando%2Farticulos%2FArt25_OrientSex_e_IdentGen_Honduras.pdf&ei=1oiRT5qTHYm90QWG5PXyAQ&usg=AFQjCNFIJT3snxv-R2uqjH5h7gu25XP6LQ)

## 6.8. Hiri globalak

Davis, Mike (2007), *Ecología, catástrofe y revuelta*, Traficantes de sueños, Madril. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.traficantes.net/index.php/content/download/17332/182158/file/Ciudades%20Muertas%20web.p>

Sassen, Saskia (2003), *Contrageografías de la Globalización. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*. Traficantes de Sueños. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: [www.nodo50.org/ts/editorial/contrageografias.pdf](http://www.nodo50.org/ts/editorial/contrageografias.pdf)

## 6.9. Bizimoduak

Davis, Mike (2001), *Control urbano: la ecología del miedo. Más allá de Blade Runner*, Virus, Bartzelona

CSO El Palomareko ostiraletako taldea, "Crítica del trabajo (asalariado)", 1997, Bartzelona. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.sindominio.net/ofic2004/historias/jussieu/trabajo0.html>

Precarias a la deriva (2004), *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina*, Traficantes de Sueños, Madril. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke:

[http://www.traficantes.net/index.php/editorial/catalogo/utiles/a\\_la\\_deriva\\_por\\_los\\_circuitos\\_de\\_la\\_precariedad\\_femenina](http://www.traficantes.net/index.php/editorial/catalogo/utiles/a_la_deriva_por_los_circuitos_de_la_precariedad_femenina)



## 7. BALIABIDEAK SAREAN

---

STOP Trans Patologización Nazioarteko Kanpaina. [www.stp2012.info](http://www.stp2012.info)

Garapenerako Baliabideen Nazioarteko Zentroa. [http://web.idrc.ca/es/ev-1-201-1-DO\\_TOPIC.html](http://web.idrc.ca/es/ev-1-201-1-DO_TOPIC.html)

Development Alternatives with Women in a New Era (DAWN). <http://www.dawn.org.fj/>

Emakumea eta Garapena. [http://www.kulu.dk/in\\_english.htm](http://www.kulu.dk/in_english.htm)

Bridge – Generoa eta Garapena. <http://www.bridge.ids.ac.uk/non-english.htm> - espanol

Emakumeei buruzko Nazioarteko Ikerketa Zentroa. <http://www.icrw.org>

Genero eta Maskulinitateen Ikastegia. <http://www.masculinidades.com/>

Hombres Por la Igualdad. <http://www.hombresigualdad.com/>

Genero ikuspegia txertatuta duten ingurumen-kudeaketa esperientziak trukatzeari buruzko Nazioarteko Zentroa. <http://www.generoyambiente.org/ES/entrada.phtml>

WEDO: Ingurumenaren eta Garapenerako Emakumeen Erakundea. <http://www.wedo.org/>

Garapenari buruzko Azterlanen Institutua. <http://www.ids.ac.uk/ids/genderWG/index.html>

Emakumea eta Ura – FAOren webgunea. <http://www.fao.org/FOCUS/S/Women/Water-s.htm>

Energia eta Ingurumena. <http://www.undp.org/dpa/publications/energy.html>

Ura toki mailan kudeatzea. [http://web.idrc.ca/es/ev-34476-201-1-DO\\_TOPIC.html](http://web.idrc.ca/es/ev-34476-201-1-DO_TOPIC.html)

